



KULTURA JARDUNAK





ESPAÑI'ÁN : 12 Laurleko

ONGILLEAK : 25 »

ATZERRIAN : 17 »

YAKIN

13'gna. A R A N T Z A Z U'n - Udarakoa - 1960

USTEA ERDI...?

YAKIN'larien artean asmo bikain ta pozgarri bat jaio da: Filosofi-kondaira bat idaztea. Erabaki onek, ordea, ba-du alako zerbait...

Gazteok ba-daukagu oraindik Euskal-erriagan itxaropenik, bai ta bai; baiña zertarako ta norentzat idatzi onelakorik? Or zegok, ba, koxka! Au izan zen YAKIN'larien Billerān norbaitek galdetu zuena: olako liburuak ez omen dire salgarri... Ta ez direla saltzen-da, ez ditugu idazten; idazten ez direlako, ez irakurtzen, ta onetarako oiturarik ez-ta, ez ditugu erosten... Ta beti jira ta bira, bira ta jira kurpil berean...

Zertarako, ordea, onelako lanik? Zertarako? Utikan galdera oiek! Ikusia dago, ba: bizi gaitezen, nolabait bizi gaitezen! Ikastetxe Nagusi baten zai gaudela ezurrak gogor ez dakiz-

kigun, pipiak jo, ta biarko batean izan liteken
Etxe orretan euskerak zoko bat bederen izan de-
zan; bestela or izango dugu gere illobia.


Ez dugula eroslerik, eta areago
irakurlerik izango? Bai, izango ditugu: ori da
gure ustea, ta Jainkoak nai dezala uste trinko
ta betea izatea. Ez gera makurtuko ustearen erdi
ustelak arras ustel gaitzaiño.


Gaur dei bat dagiegu euskal-idaz-
le filosofilariei: lan au burutu, ta bear bezela
burutu dedin, zuen laguntzaren premian gaude. E-
rantzuiguzue, arren, lenbailen. Atozte lanera,
guziok elkaturik Euskalerritari kultura biribil
bat opal dezaigun. Otoi!!!

Lana borobiltzean, euskaldun gu-
ziori botako dizuegu gure eupada, zuek ere sal-
garaián edo eros-orduan izango duzue eginkizu-
nik.

Laister arte guziori.

Y A K I N





TEOLOGİ
FİLOSOFİ
SAYLA

AITA SANTUAREN ITZA

ELIZA TA AFRIKAKO ERRI BERRIAK

Urte au zear amaika berri pozgarririk eldu zaigu Afrika aldetik, bai irratiz bai izparringi ta aldizkari orrietan.

Garai batean, aurtzaro denboran, Afrika izena entzuteakin, urrutiko beltz gaiztoen erriarekin topo egiten zuan gure gazte zentzu arifñak. Izan ere amaika kondaira eratu baida beltzen bizkar. Egi edo gezur?

Gaurgero Afrika aldeko gizasemee oiek, nai azalez, soin tankeraz eta kulturaz zerbait ezberdintasun izan, ala ta guziz, beteganako zaletasunaz zuzpertuta gatoz. Gizonak diralako, noski; kristau, Kristo'ren anai ta gure anai diralako noskiago.

Afrikako errialdeak, ainbat urtez europatar mende egonak, bere gain altxa dira eta iritxi ere iritxi dute azken aldi onetan, Askatasuna, Jabetasuna, erri-nortasuna. Gure poz eta zorion ezti-enak!

Amabosteraifio zenbatzen ditugu askatasun argi-printzak jo ditun Erriak. Beste zenbaitzu ere egun-urratzean dira.

Jainkoak gizon bakoitzaren eta edozein Erriaren mamiñean erantsitako doai ta eskubide oiek ludi guziko Errien aurrean, oraingoz beifñepain, begirun guziz ikusiak izan dira. Gogo oneko gizaseme guziak arrera ona egingo zioten gertakizun oiei, nork ukatuko? Ta zenbat areago Elizaren Zaindari dan XXIII Jonek. Eskutitzak, irrati-deiak ta zorion-agurrak joan etorrian ater gabe ibilliak

dira, Erri oien Askatasuna, esku izatea, Jabetasuna onartu, txalotu ta zoriondu nairik.

Entzun, beraz, ludi: zabaldurik dagon Elizaren Buru ta Aita duzun XXIII Jon'1; bere itzetan azalduko da ze neurrigabeko por-alaitasunak nausitu diran bere biotzagaz Afrikako gertakariak dirala-ta.

Afrikakoek zuzentzen die mintzoa:

"Togo erriko nere seme kutunai:

Zuen erriaren askatasuna iritxi duzuten ez nolanaiko orduetan, bein eta berriz dizuet pozez gaitzezka, len ere, Togo Erri jatorreko seme maiteak, zuenganako aita baten zaletasun bizia, Afrikako semeetatik lendabiziko kardinala, Rugambwa' tar Laureano alegia, egitekoan zuzendu nizuena: biotza, alaitasunaz sendotu eta alaituz Afrikako lurraldera dijoakigula: Agur, ba, zuei, agur erri buruzagiei eta garako eliz ta erri gizon aundikiei, biotz-biotzez zorionik beroenak!" (Togo Errikoek Askatasunaren jabe altxa ziranean).

"Afrikako seme biotzekoak:

Naiz eta soilki gure abotsa eldu zuengana, jakin ezazute, gogoz eta biotzez zuen arteko generala, Vatikanoko bizilekutik, Pedro donearen illo-bitik urbil, beraz, zuengana dijoa nere mintzoa.

Auxe jakin erazo nai dizuet... asko pozten generala doi-doi askatasun gaillurrera zoaztela ikusita. Ori dala-ta Eliza poz gaitzezka duzute." (Garagarrillaren 5'an Afrikako katolikoei).

Orrelaxe agurtu zituan ere Kongo errikoak askatasun jabe egitean. (O.R. Uztak 3).

"Madagaskar'ko biotzeko seme katolikoei:

Ludi guziko errien artean zuenak bere esku izatea lortu egunez, azaldu genizuen gure atsegin ezta, zuen nagusiari erriaren alde itxaron beteko etorkizuna opa egiñez. Orain berriz esango dizuet, Madagaskar'ko semeen poza gure poza dala." (Uztailaren 12'an Madagaskar'koeri).

Eliza, edozein erri-eskubideen alde.

"Zuen arteko gora-beerak zuzenduko lituzken burujabetasun edo autonomiaren ondotik zabilzate. Enda guziak, nortasun jatorrez jantzitako edozein gizarteak, ba-du eskubide, egizki, bere nortasun

ori aitortu eta jalkitzeko edo aurrera ateratzeko, orrela giza-sendia kimu berriz aberaster baida" (Aita Santuaren itzak).

"Sudan'go gotzaiak Erri gazteari, agur..." Gotzai oiek Elizaren izenean, bere ordezkioak baidira, askatasun neurriak batere estuti gabe ta bere mendez leku dauden politika arazo ta gorra-bereetan burruntzalirik sartzeke, Sudango gotzaiak aitortzen dute ao batez, gertu daudela gizabide-maillaren difiako dan gizartea antolatzeke, ots, egiazko zorionaren iturburu dan espirituz jasotako gizartea, Jainko-lege ta gizonari zor zaion itzalakin ongi lotzen dan ekonomia ta gizabidez jabe dan gizartea, noski. (Sudan'go gotzaiak ao batez egindako itzalditik).

Beste batean orrela die XXIII Jon'ek Afrikako katolikoei Garagarrilaren 5'an: "Eliza eraiki zigun Kristo'gandik jaso du Eliza doneak erakuspen au, askatu dezazkela Elizak giza-aurien maratillak, -erlijio zilleztegi mugaetatik irten gabe noski- ... garai-garaiko bearrak eskatu ala, bakoitz, sendi, erri, ta erriarteko bizibidea indartu ta zabalaraziko duten oinarriak jarri ere bai.

Erakuspen au, giza nortasunari ez ezen, erritarren arteko onaren begira emana. Oiegatik begizko zaizkio Elizari, emakumea, dagokion maillara jasotzeko egin diran alegiñak." (O.R. Garagarrillak 8).

Ez dezakegu utzi aitatu gabe Molula gotzai jaunaren jokabide bular betekoa. Leopoldville'ko gotzai au, Kristo'ren aitorle bizi dugu. Egia nunai, jende xearen eta aundikien aintzinean esaten dakina. Bidaliak jokabide ortatik ibilli baiziran, naiz eta bide orrek eriotzara zeramatzela jakin.

Ara zer zion Gotzai onek bere erritarren eskubideen zaindari eginda: "Erri batean bertako gertakariak jakiteko askatasunik ez bada, ez dugu esango demokrazi mende gaudenik, diktadurapean baiño. Diktadurak makilpera garamaz, gizonak soilki gizona morroitzera.

Gotzai naizenez, giza eskubide soillenen alde oju egin bearrez gerta gera. Bizitza ta Askatasuna eskubide oiek.

...Gure erriak ba-du eskubiderik, egia o-
sorik jakiteko. Orren eskutik dago gure Erriaren
eta Afrika osoaren etorkizuna.

...Eskubide berdiñak egiari ta gezurrari?
...Ez orixe! Gezurrak inola ere ez du eskubiderik
egiarekin berdintzeko.

Gure Erriaren erdian gertatu oi dana jaki-
teko erbeste irratietara jo bear? Ori ez dezake-
gu jasan.

Gizonari egia ukatuz gero, beren jakin
gura gezur zatarrez naspiltzea itxuskeri galanta
derizkiot ta giza-askatasunaren buruzki dago".

Ara emen Gotzai pisuak, aita arduratsua-
ren legezko itza. Oraingoaren ere erriaren esku-
bideak, Gotzai onen ausardiz ta neurrigabeko za-
letasunez, ez dira Estaduaren aurrean xutil gela-
ditu. Kopeta ta biotz-indarra bear zan ortarako.
Molula jaunak agertu ditu. Gure txalo ta esker
beroenak!

Erriak oztopoen aurrez-aurre.

Aita Santuak Afrika'ko lurraldekoei bere
zorion-agurrak zuzendu ta erri-eskubideen alde
mintzoa jaso ondoren, ze oztopo-arri arkituko di-
tuzten argi-argi oartzten die. Ta bereala bideko
oztopo oiek errez saiesteko aoulku auxe damaie:
"Bideko oztopoak oro ezagunak ditugu. Jainkoak
ez badu etxea jasotzen alperrik dabiltz jaso nai-
ean gizonak (Ps. 126,1) -dio Idazti Doneak. Ardu-
ra guziz eskatzen dizuegu, batu ditzazutela zuen
otoitzak geurenakin eta eskatu, arren eta arren,
Erri guzien Jaun eta Jainko guzialtsuari, zaindu
dezala Congo-erria.

...Kristau zintzoak, sendiak, parroki-
taldeak oro...Aurrak eskoletan, gaixoak gaixote-
gietan, Jainkoari eskeiniak lekaidetzetan eskatu
...sendi-batasuna, bakoitzaren zoriona...Congo-
erriaren batasuna! (Congo'ko katolikoei irratie-
deiez, Garag. 30'an).

Elizaren eta afrikatar Erri gazteen arte- ko artu-emanak.

Afrikatar Erri gazte auek Elizarekin di-
tuzten artu-emanak, orain artekoan onak dirala
esan bearrean gaude. Elizak Erri auen askatasuna-

ren alde gogor egin du itz eta lan. Oroitu besterik ez Sudan'go Gotzaien jokabide berdiña.

Aita Santuak, berriz, urte au zear, beltzetatik lendabiziko Kardinala egin du ta beste amairu Apaiz Gotzai maillara jaso al izan ditu. Erriak bere esku egin neurrian Aita Santuak Afrika'ko Elizak bertako semez zuzentzea nai du, ikusten danez. Orrela nabari jartzen dira Aita Santuak ditun ardua-zaletasunak Afrika'ko semeenganako, gizon guzuen salbazio-egarriak eraginda. Egarrori ta Erria Eliz-etxera ekartzeko gogoa, itz auetan nabaitzen dira: "Eliza ta kultura ez dira gauza berdiñak... Elizaren egitekoa oso besterik da: gizonak zerurako irabazi. (Afrika'ko idazle ta erlilariei, 1959'ko apirilla).

Elizak beste seme guztia artu oi dituan maitasunez, zuen ere onartzen zaituzte, bera bada anima guzuen aberria" (O.R.Garag.8).

Nola erantzun diote Afrika'ko Erriak Elizari? Orain artean erantzunak itxaron betekoak dirala diote; naiz-eta komunismua zenbaitzuen Errien inguru, jira-biraka, nor irentsiko ibilli.

Oraindaiño Erri guzti auen artu-emanak Dakar'ko Eliz-Batzordearen bitartez zuzendu oi ziran. Mali Erriak, Elizarekin zuzen-zuzen konpontzeko asmoak azaldu ditu.

Ginea'ko buruzagiaren ordezkoa orrela mintzatu zan, N'zerekore'rako Gotzai, Miilla jauna bere Gotzai-alkian exeritzekoan, arrera bikaiña zegiolarik Erriak: "Ginea erriak, Elizak ez-jakitzaren aurka egindako lanak txalotzen ditu".

Dirudinez, Erri auek begitarte ona ipintzen diote Elizari, batez ere, konturatzen diranean zenbat zor dioten Europatar Erriei, baiña batez ere Elizari, Berrionaren argi-printzaz dirdaitu ditulako, ez-jakiñetik gaur-gaurko kulturara jaso ditulako. Ala ere, Congo-aldeko ortze urdiña zerbait goibeldua dirudi. Bertako kontuak ez dabiltz ain zuzen. Aita Santuak eskatu ere eskatu zien, beren ongilleeri esker onez erantzuteko. Baiñan besterik izan da erantzuna. Beljika Erriak merezi zuan bai eskerrik onena, ainbat lan egin eta gero. Bainen oraingoz, Erri gaztearen odol beroak bere onetik ateratzen dira, askatasun pozak geiegi eraginda nunbait. On egifñak aztuta, zuriekin dituzten alder-

di utsak ikustea ez da gizonarena.

Aita Santuak, arren eta arren eska bezela, lagundu dezaiegun Afrika" aldeko Erri oiei geure otoitzez, zuriekiko alderdiak alde batera utzi, bide zuzenetik bere ongillerei esker ona opatuz, kokatu dedilla aiengan, "Jaunaren atsa, sen eta adin atsa, onu ta indar atsa, Jaunaren ezaguera ta bildur atsa". (Is. 11, 2-3).

o o o

EUKARISTI BATZARRA MUNICH URIAN

Batzar onek bide eginda Eukaristiari buruz zuzendu ditun itzaldiak asko dira. Eukaristia, gizardiari argi, indar, bizi, batasun-lokarri. Ara or itzaldi oiek irakurriz arkitzen diran egi sendoenak.

Eukaristi Santua, bizia ta batasun-lokarri.

Eukaristi Santuaren azaleko itxurak berberak ere, bizia ta batasuna adierazten dute. Ogi-Ardoak gure soñarentzat, janari diralako, beroa, indarra ta bizia damaiote. Gari ale ta maats-luko ugariak elkartzen dira Kristo'ren Gorpuz eta Odol biurtuko diran ogi ta ardoak eratzeko.

Orrela, Eukaristiak ere Beragan Kristo'ren Gorputz-Odolak bilduz, bere janari izanki, indarra ta bizia damaizkio eta kristauak lokarri estuz lotzen ditu, Kristo'k berak korapilloarena egiten dula.


Bainan nagon ixillik eta zut belarriak Aita Santuaren itzetara: "Eukaristi Santuak Beragan graziaren egille Berbera biltzen dualako, Jainko graziaren iturririk aberatsena dugu. Berak sendotu ta osatzen du Jainko-bizi au, Bataio-uretan ernaberritu dan guztiengan. Orregatik, eta batez ere, Sakramentu onen indarragatik, Kristo'k, Artzai Onak, Beragaz aitor egiña bete-betean egi gertatzen da: Ni, bizi dezaten, ta gainezka dezaten etorri naiz (Yo. 10,10). Gure siñismenak ba-du arrigarri bikainik, Komunio ta Opari Santuaren indarrez, gizardi-sendiari grazi-ugoldeak ixurtzen zaizkionean! ... Kristau-sendiak goi-grazitik parte artzen dute ta beraren eragiñez, bat-batean eta sendoki, elkar-maitasuna, garbitasuna, senmeen esanera egotea

ta oien ondorioz datozen pake ta barne-alaitasun gozoak loratzen dira"(Dagon.7,Munich'era zuzendutako irrati-deiatik).

"Sakramentu onen eginkizun berezi ta berezkoa...batasunaren agerbide ta eragille izatea, Tranto'ko Batzarrak orrela erakusten digu benepein... Sakramentu beraren gai berberak ere aita degun batasun ori azaltzen digu. Baiki: ogi bakarri gari-ale askoetatik eta ardoa zenbatu eziñalako maats-txortatetik sortzen dan bezela, era berean kristauak Kristo artzean, Gorputs bakarri, Eliz Bakarri"(Testa Kardinalari bidalitako eskutitzetik)(O.R. 1-2 Dag.).

Batzar aundirako eratu zuan otoitzean, azken aldean, biotz suturik onela eskatzen zion Jaunari: Oi Jesus, zure Sakramentu ori bedi adimentzako argi, naimentzako indar, biotzentzako lillura! Bedi argalentsat indar, oiñazetan daudentzataringarri, il-zorian daudentzatar osasungarri, ta guzionsat betiko atsedenenaren baikuntza".

Muxika'tar Errupin
-Beneditarra-



RUSSELL: JAKITERIK BAI?

Bertrand Russell gaurko filosofilari ezagunetako bat duzu. Baiña bere filosofia ez da Eskolastikaren kimutxo bat. Ez, Jainkoari eskerrak. Bai baidakigu deusez baiño geixeago ba-dela, baiña guztia baiño gutxixeago ere. Russell'n filosofia bestelakoa da. Eskolastikaren etsaia ez-ezik, bai bere alderantzia ere. Zein aspergarria litzai-guken bizitza, dena berdiña balitzaigu. Ta zein mikatza zaigun munduaren desberdintasun kontaezi-ña... Bertrand Russell'en eta Eskolastikaren sistemak dituzu, beste ainbesteren artean, bizitza ugaritzan diguten gauza ezberdin orietan bi. Nola izango kide bi sistema, filosofiaren beraren ki-zuna bakarra izan ezik? Russell ezagutze eskierra ta abar erdeiñatzen baditu, ezin etorri Eskolastikarekin bat.

Aizunari buruzko iritzia aski zaigu, zein filosofia duen usmatzeko. "Filosofiaren Prolemak" irakurtzen ari denak azken aldera iristean Russell'en filosofiaren laburpen-edo bat idorotzen du. Liburu onen azken kapituluak bere filosofia osoaren ezurra direla esan genezake. Eta oraingo onetan auxe eman nai nuke, alegia, ezurra.

Amaika aldiz pentsatu izan dugu kalean dabiltzan gizon orietzaz geure gelan ari ginala: emen nebillek Aristotele ta Kant, Santo Tomas ta Bergson, filosofilariak matasan irentsi eziñik. Au maukada baltza... Zer pentsatzen ote dute kalleko beste oriek lan onetzaz? Apika, denpora poliki galtzen dugula.

"Filosofia ba-da izan", asten da Russell. Eta zertarako? "Zertarako" au bera ere Filosofiak duen azterketa-gai bat da noski! Ez, ordea, azterketa maskor eta konka, asko ta askok, negozioen pipiak jota, ala uste arren. Zenbait praktiku-suertek, diru-gosek, Filosofiari zeregin aalge ta mozkin gabe derizkio; burua naastu ta ero biur gaitzaketen korapilloak askatu naia...Orra guztia.

Iritzi au bizitzaren eredutzat jomuga faltso baten onesteari dario. Baita, alaber, Filosofiak eskuratu nai dituen ontasunen ezezagutzeari ere. Fisika, Kimika, Matematika, jakintsuери bezain ongarri zaizkie ezer ez dakiteneri. Tira, ainbeste ez... Beraz, Fisika jakintzak ez dire ikasgai norberari dagioketen onuragatik, gizadiari egingo diotenagatik ainbeste. Ez onela Filosofia. Onek ikasleari ba-dakarkio onik, saieska

ekartzen, ots, ideiak bizitzan izango duen egitekoaren bidez, egiteko au beti gogoarekikoa dela. Ondore auetan billatu bearko dugu Filosofiaren balioa, baldin beraz alako baliorik badu.

Oraintzetik, alabaina, bearko ditugu gizon praktikua dela medio ditugun aurre-iritziak -denok baidugu sits au aragiari josia- iraitzi. Gizon praktikua diru-bidean amarruz naiz makurrez, edota zuzenki, azkarra dena da. Gorputzak eskatzen duenaren asetzeko beti larri, aiduru dagoena, gogoaz, espirituaz beintxo badarik ere oroitu ez arren.

Gizadia nai aña jateko lukelarik, nai duen denaz jabeturik, zerbait geiagoren gose ta egarri litzake. Ez baida gizona gorputza bakarrik. Ta gure mundu materiazale onetan gogoak bere otordua eskatzen du. Zantzoka eskatzen. Filosofiaren balioa, esan bezela, gogoarekiko ontasunetakoa da. Gogoa aaztu ez dutenek bakarrik usteko dute Filosofia ikastea denpora galtzea ez dela.

Filosofiak, beste ikasketak bezelaxe, jakiteruntz jotzen du. Gaizki diot, ez beste ikasketak bezela, geiagoren billa baino. Filosofiak atzapar luzeak ditu, eta zera izan nai luke, beste jakite guziaren eustarri edo ezurra; ots, gure jakintza ta iritzi orotatik, eta oroentzako, ernejakintza. Filosofiak, ala ere, ez du ezer garbi ta konkreturik lortu, dio Russell'ek. Kimiku bati bere jakintzaren aurrerapenez-eta galdetzen badiogu, unean erantzungo digu, ta atergabean arituko ere. Filosofilari batek,ordea, egiatia bada bede-

ren, larri erantzungo liguke. Atzo Filosofia zena, egun jakintza berezi biurtu zaigu, izan ere. Newton'el idoroa, ikasia, bere garaian filosofiatzat zeukaten. Arabera, gizona bera zatika-zatika filosofitik erortzen doakigu estudio aldian: soziologia, psikologia esperimentalak...

Guztiarekin ere au ez da filosofiak duen zalantzaren, igikortasunaren alde bat baizen. Badira zenbait prolema, eta batez ere gogoaren bizitzari datxizkionekatoak zeintzuen aurrean gure adimen kamutsa beti makal aurkituko da, gaur denetik bestelakotzen ez bazaigu beintzat. Prolema ta buauste franko atera ditu Filosofiak zelaira ta gero...

Filosofilari askok uste izan dute erantzun bakar eta egiazko bat bat eman lekiekela filosofikizun guzietan. Erlijioaren oinarriak eta dogmak demostra litezkela. Oen kritikatzeko gure adimen argalaren aalak eta indarrak, arauak eta esiak bearko genituzke ikusi lenda bizi. Xeeke egiten ere du 1950'ko Nobel Saria jaso zuenak. Bai xeeke, zuzenki ordea beste gauza bat delarik. Ain beste! Russell'ek ondorengo au ateratzen du: ez dago erlijio sinismenaren egiztatzerik.

Filosofiaren kalipua, balioa, zalantza onetantxe aurkitzen dugu. Filosofia izpirik ez duena, agizko senaren eta onen akats guztien zamari doa, bidazti itxu, bizitza onetan. Egunerokoak ez dio gogoa irauliarazten. Filosofian murgilduz gero, berriz, edozerk iratzartzen digu prolema bat, ta prolema-sasi oni gutxitan ikus dezaiokegu zuzta-

rrik, ez bururik. Alabaiña, aaleko asko agertzen zaizkigu emendik, gure gogamenaren barrutia aberastuz, ta oituraren lokarriak gugandik aizatzen ditugula. Eskiertasunak baztertzeak jakintza-alorra zabalagotzen du. Inoiz gogoari galdetu ez dion arranditsuaren dogmatismua arbuiatuz, miresmena ernatzenago, piztenago zaigu.

Aalmen barriak sortze ta erakuste onetatik landa, Filosofiaren beste balio bat -balio bikaiñena ta joriena, bear bada- ikustatzen denaren aunditasunean bertan datza. Norbearen mozkiñen esi kaxkarrak ixten du gizon-aberearen(?) bizitza. Bizitza onen ondoan filosofilariarena bai zabala ta paketsua... Bizitza ura, norberarena, norberekoa, parregarria da beste bizitza aundiaren, mundu indartsuarenaren ondoan. Gure aundinaian mundu guzia irentsi nai ez badugu, gaztelutxoan sarturik gaude zaarraren zaarrez ustel gaitzezeiño. Eta bizitza pake-irudi onetan ez dago, azal azpian, barnean, gudua ta irakiña baizik. Sasi-pakea, naiaren irritsa ta ezin benetan nai izana burrukan... Aundiak izateko, burruka irabazteko, gaztelu onetatik jauzi egin bear dugu, itzuri. Ta jauzi-bide bat -bakarra- Filosofiakoa .

Filosofiako ikuspenak ez du bitan mundua zatitzen, ez du lagunik eta etsairik, onik eta gaiztorik bereizten. Guzia begiratzen du, guziñ batean. Filosofiazko ikuspenak, garbia denean, ez du izadiaren eta gizonaren alkarrekiko antza probatu nai. Jakitearen ugaritzea, Ni'aren indaragotzea da. Baina indartze au bera denagatik

billatzen denean, ez da aurkitzen, jakin-mina tarteko, oni berekasa jare etiten zaionean baiño. Ni'ak izakieri dagokien kera artzen du. Lan zitala Ni'aren eta izakien kidetasuna, sistemagatik, aurre-irritziz, egiztatu naia. Ikusketan Ni-ez'etik abiatzen gera bere aunditasun eta ederretik nire Ni'a jatortzeko. Izadiaren mugabea begiratzuz, gogoia ere nolabait mugabe itzultzen zaigu.

Ezagutza, jakitea, Ni'ak eta Ni-ez'ak alkar besarkatzekera bat dugu. Ta besarkadan bieta-ko batek urkoa azpiratu nai baleza, batasuna urratuko litzake. Batasuna ondatzen dugu, izadia gure neurrietara kaxkartzean. Tamalez, barreiatuegia da gizona adozeren neurria delako iritzia.

Ikusketan, geurekoia den guzia, tasun edokeri, oztopo-arri zaigu. Adimenak egarri duen batasunaren iturria bera agortzen baidu. Adimenaren eta bere kizunen artean iragan ezin arresia erakitzen du geurekoikeriak. Gogo askeak, erabat askeak, ia Jainkoak berak bezelaxe lekuske.

Ikusketan aske ta bere eskuko izan denak -ta onela da filosofiazko ikuskera duena- bere egunoroko arazoetan askatasun orri darion araudiaren ariora jokatu du. Bere nai ta erabakiak Guziaren zatiak irizpetuko ditu. Iritzi au, esan dugu, Filosofiatik datorkio, ikuspenetik. Ikuspen onek izadiko seme egiten du filosofilaria. Izadiko seme Guziaren ezagutu nairik edonoruntz abiatzen da adimen filosofilaria. Adimenak ezin du beste batek esana erabat onartu, Egia'ren mugak

ikusten ez ditugunez gero. Filosofilaria aske da ikusketan.

Bere eskuko, aske, izate onen muiña zera da: egiaren egarri errea, Egi-miña... justizia, esaera ezagunagoan. Onela filosofiak, gure jakintzan ezeze gure bizitzan ere ba-luke zer egiñik. Izadiko biztanle egingo gintuzke.

Filosofiaren balioatzaz esana laburtuz: filosofia ez da ikasgarri emango digun erantzunagatik -ez baita jardespen ziburra izango- problemaren balioagatik baizen. Izadiaren aundia ikusiz eta maitatuz gogoia ere aunditzen delako, izadiarekin batzeko gai biurtzen geralako, batasun au gure zoriona izaki...

Azurmendi'tar Jose
-Arantzazu'koa-



TERESA DEUNTAREN IRAKATSIAK



(Jarraipena)

III.- Deuntasun-bidea

Deuntasuna zer dan aurrekoan ikusi gendun. Gure naia oso-osorik Jaungoikoari ematea, Jaungoikoarenarekin bat egitea dala deuntasuna ikusi gendun. Au errez esaten da. Nola ordea, elburu ori iritsi deuntasuneko goi-mailla orretaraino nundik edo nola igo?

Ona gaurko gaia.

Bitara osotu gindezke: gure izamenari berezko zaizkion osogarriak geuk geureganatuaz eta gure izamenaren gairdiko diran beste osogarriak Jaungoikoak guri emanaz. Lenengo osotasuna alezkoa, naturala, bearrezko zaigu. Berezko, alezko zaigulako, gairera, geuk geure indarrez iritsi bear dugu. Obenatiko ondoren zitalai burruka egiñaz, Jaunaren laguntza onartuaz, gure bikaintasun guztiak zintzo erabilliaz iritsi bear dugu osotasun au. Osotasun au aski dugu Jaunaren agindua betetzeko.

Obena ta griña gaiztoakatik gure izamena bidegalduta dabil, Jaungoikoagandik iges, gauza itxusi ta makurretara doa. Jaungoikoaren-

tzat egiña da, Jaungoikoagan bakarrik ase ta atsenden diteke; bere aultasunak, berriz, beera daragio ta itsukeriak sasi-asegarrietara darama. Gogaituaren egitez aultasun eta itsukeri auek indar bizi ere baidira, orra gure barnean burruka. Erdibi eginda gaude eta erdia erdiaren aurka ari izan bear. Osotasun au, beraz, zailla zaigu.

Beste osotasuna, alezgaindikoa, sobrenaturala, guk gure indarrez ezin dezakegu iritsi. Jaunaren Laguntza berezia bear-bearreko dugu. Osotasun naturala iristeko ere, Jaunaren laguntza bear dugu; laguntza ori, ordea, kristau guztioi ematen zaigu. Osotasun sobrenaturala ez da guztiontzat bearrezko; oso gutxiri Jaunak eman oi die. Alaz ere, osotasun au guztioi irrika bear dugu, guztioi bidea gertu bear diogu, Jaungoikoaren egiña gurea baiño bikainago baida; ta alezgaindigo osotasuna Jaungoikoaren lana da, alezkoa berriz gurea. Alezgaindiko osotasuna bestea baiño errezago iristen da. Orain, esan dugunez, Jaungoikoak baidagi lana gogoak baiño areago. Gogoa ezin diteke beifire alper egon, beti du eginbearrik. Eginbearretik eginbearrera alde aundia dago, ordea. Leen gogoak berak arkitu bear zitun osogarriak, orain Jaungoikoak ematen dizkio gogoari; onek artu bakarrik egin bear ditu. Artze au ere, ordea, ez da eginkizun ain soilla, oso errez baida Jaunari eragozpenak jartzea.

Maitasun betea dala osotasuna esan gendun. Maitasun betea daukana da osoa. Orrengatik maitasunaz neurtzen da osotasuna. Beraz, ta aurreko lanean ez nun esan, osotasun absoluturik ez dago; maitaleagandik ez baiña, maitatuagandik maitasunak artzen baiditu neurriak, ta maitatua Jaungoikoa da. Orra, bada, darabilgun osotasun au erlatibua da.

Orain goazen gure gaira. Deuntasunera-ko bideaz Teresak zer darakuskigun ikus dezagun.

Esana dut gogo-gaiari zeatz dagokien itzik ez dala; izan ere itza ez baida gogo. Emen ere, bada, irudi bat dakarkigu Teresa'k.

Ikatz-arri edo leiarrezko gaztelu eder-bikain bezela da gure anima. Gaztelu onek gela asko ditu goian, bean, eskubi aldean... Barru-barruan, erdi-erdiko gelan Jaungoikoa dago gaztelua argitzen eta guztia Beragana darakarren argi ta

indar dariola; gaztelu ingurua, berriz, pizti zirtzil eta etsaiez betea dago. Eragozpen guztiak azpiraturik Jaungoikoaren gelaraiño sartzea da gure eginkizuna, osotasuna. "Gure gaztelu eder-zoragarri ontan nola sartu gindezken ikusi bear dugu ordea. Txorokeri diodala dirudi, berriz; gaztelu ori gure anima baldin bada ez baidago gaztelura sartu bearrik; gelan legoken bati gelara sartzeko esatea baida. Egoera batetik bestera alde aundia dago baiña. Anima asko baidaude gaztelu inguruan, aren etsai artean, barruratzeko ajolarik gabe, toki eder ortan ez zer dagon, ez nor dagon, ez nolako dan ez dakitela"(M. I,I,5).

Gauza bi bear ditu, beraz, animak osotzeko: gaitza utzi ta ona egin. Gaztelu inguruan dabiltzan piztiak oinperatu, aien limurkeriak eze+tsi ta gazteluaren erdiraiño sartu. Arritzeko da gero piztiak ta olako zirtzilkeriak gu limurtzea, baiña olaxe gertatzen da; ardi-narruz eta argi-aingeru dirutela datzkigulako. Inor ez doa gaitzera gaitza dalako, on dalakoan baiño. Gaztelu inguruko zikinkerik oiek ere ba-dute zerbait guztiok, tamalez, on deritzaguna.


Eginkizun ontan"erabaki aundi ta guztiz sendoa"(C.P.21,2) animak artu bear du lendabizi. "Naiz eta edozer gertatu,naiz-eta edozein lan bizkarreratu,naiz edonork marmar egin,araiño eldu ez eldu,naiz bidean il,naiz bideko eginbearretarako biotzik ez izan,naiz eta mundua bertanbera ondatu..." Jainkoaren gelaraiño eldu arte ez gelditzeko asmo sendoa gogoak artu bear du.Beldur ta bigunkeriak gogaikarri zitzaizkion Teresa'ri.Berberak dionez deuntasunerako bidean ez du nai emakumerik,gizon kementsu guztiok nai gaitu.

Onela bi gauza gogoak egin bear ditu, esan dugunez, gaitza utzi ta ona egin.Gaitza uzteari "garbikuntza" naiz "ukoa" esan oi diogu.Garbikuntza,obenakandiko orban ta ondoren gaiztoak kendu bear ditugulako; ukoa,Jainkoari bear zaion maitasuna Berari bakarrik eman ta aren izakiai ukatuaz garbitzen geralako.Eginbearra dugun ona,berriz,ekandunak eta otoitza ditugu.Men eder asko Jaunak eman dizkigu.Men auek gaitzerako ez baiña onerako ditugu. Emendik noski "onoimen"itza.Men bakoitzak ba-du

bere eginbearra, ta eginbear ori bete arte mena ez da osotzen. Ortik ekandunen bearra. Otoitza ere bearrezko zaigu Jaunaren urbil egoteko, Deuntasun oso iritsi al izateko, beraz Teresa'k iru gauza eskatzen dizkigu: garbikuntza, onoimenak, otoitza.

Auetaz urrengoetan bereziki.

Sekundino Anaia
Karmeldarra



NOLA EZAGUTU



KRISTO

Kristo'ren betebearrak ez du berdinek gizonen artean. Arek mundu ontara ekarri zuan eginbearrak kaskar uzten ditu aldi guztietako gizon ospetsuenak. Kondaira osoaren, oraindik geiago, kosmos dalakoaren auzia erabaki bear zuan Berak, eta ez gizon onen edo beste arena bakarrik. Bere egitekoa istoria osora ta mundu guztira zabaltzen zan.

Onela bide berri bat, esanai ta kemen berri batzuek ezarri zizkion munduari. Bere oin agurgarriak gure lur ontan ipiñi zituan ezkeroz, gizadia ain bortizki astintzen duten auzi-mauzi ta gora-beera guztiak Arengan arkitzen dute erantzun betea. Berak erabakitzen ditu kondairan zear sortzen zaizkigun galdera guztiak. Berak ematen

sentidua, esangura, pekatuaren, atsekabearen eta eriotzaren problema larriari.

Gizandi onek, Kristo'k munduari eragin dion aldaketa ikusi ondoren, berealaxe datorkigu galdera bat burura: Nor da au? Gizadiak nai-ta-nai- ez egin bear duan galdera auxe. Ez da beste larri- agorik. Ori dala-ta, galdera onen erantzunak bes- te edozertarako baiño arreta geiago eskatzen digu. Izan ere, ontatik, gauza guztiak joera ta jantzi berriz inguratzen eta apaintzen baidira.

Nor da Kristo? Ebanjelariak eta beste Itun Berriko idazle Santuak argi agertzen digute Kristo nor eta zer zen. Ona emen beren erantzuna: Kristo misteriorik sakonena da.

Berez gizon bakoitza muin-muiñera bagoaz atertut eziñezko misterioa baldin bada, a- reago Kristo giza-misterio guztien aldean, sakon- izkutua.

Pertsona baten izkutu-gordean bera gu- ri irikitzen zaigun neurrian sartu gaitzke bakar- rik. Ba-liteke notin ori gure azterketa eraman nai ez-eta, bere baitan istea, bere barrunbe aberatse- nean estalirik gelditzea, ta orduan, zer gutxi ja- kin genezaken beratzaz. Bere irudi zeatz-meatzik ezin eskuratu beintzat.

Munduko beste zerak ezagutzea errex- a- go zaigu. Ortarako aski da nai izatea. Gure alme- nak zer ortara zuzentzea. Ez notinekin aritzean. Gizonaren gurari, naikunde, burubide ta naimena- ren ekiñaldi izkutuenak ezagutzeko ez da naiko gu- re elegiña. Bere barrua agirrian jarriaz laguntzen

ez digun bitartean, oso gutxi aurreratu genezake. Ta alare, nor guztian, beti geldituko da Jainkoak ezik beste inork atziko ez duan, urratuko ez duan zirriztu kuttun-kuttun sakon bat.

Baiña gizon batek bere baitatik azalduta, besteak ortikan ezagutu dezakena ere ez dute denak atxiki al izaten. Ortarako zentzun berezi bat bear izaten baida. Ez da aski adimena azkarra izan arren.

Beste en barrenera iristeko maitasuna bear-bearreko zaigu. Maitasunez argitu ta beroturiko gogo gabe ezin ortan ezer egin.

Bestearengana maitasunez dijoanak, eta arek bakarrik, al izango du, aren misteriozko izak ra urratu ta an bere barren kuttunena ikustera iristea. Onak bakarrik daki besteen barrenean irakurtzen, besteen ixil-gorde ta gogo ta biotz agertaldietan irakurtzen. Maitasuna bear. Biotza ta biotzean maite-sua.

Zer esango dugu orain Kristo'ren misterioari buruz? Beste gizon guztiena baiño askoz ere sakonago, aberatsago, ta ugariagoa dala esan bear. "Munduan zegoan, eta mundua Berak eguñia du, baiña munduak etzuan ezagutu"(Jo.1, 10). Beretarek etzioten antzik ematen. Etsaiak etzioten itz bat ulertzen. Eta bere kuttunenak ziralarik, Berarekin zeramazkiñentzat ere, Bere inguruan bizi izan arren, konpreni-ezifiekko misterio arrigarria zan Kristo. Pentekoste egunez, Gogo Gurenak betetzen dituanean bakarrik begiztatuko dute poz-

atsegifietan Kristo'ren misterioa, dirdiraz betea.

Kristo'rengan jokera kontrakoena batasun zoragarrian alkartzen dira. Pekatariei beren gorde-leku izkutuenetan ere an jarraitzen die, ezin zorrotzago ta ala ere, bazkaldar ta adizkide da pekatariekin. Gizonei beste iñor baiño maitasun kuttunagoz ta biotz xamurragoz lotua dago, ta ala ere, arrotz ta ezezagun zaie. Bidalientzat eurentzat ere, aldi berean, gertuko eta kuttun ta urrutiko ta arrotz da Kristo. Noiz edo noiz ezagutu dutela uste dute; luzaro gabe, ordea, itz batzuek entzuten dizkiote ta ago zabalik gelditzen dira, zer esan nai duan antz eman ezinik.

Ez da besteak bezelakoa. Besteak gizon utsak dira ta Bera Jainko-Gizon. Kristo inguratzen dutenak emen beekoak dira, Ura berriz goitikoa izan. Ba-da or alderik. Orregatik Kristo'k bere laguntzaz bere maillara jaso ezik ezin Ari antz-eman.

Ona emen Kristo, misteriorik aundienea-takoa. Ta misterio au maite dunari bakar-bakarrik irikiko zaio.

Asmaketa ausartak, kondaira azterketak eta filosofizko gogo-iraulketak ez digute Kristo dan bezela ematen. Oiek ere bearreko zaizkigu, ba gure begien aurrean jartzen digute Kristo. Kondaira zeaztasunak eta Ebanjelarien azterketak gure gogo ta ardura guztia Kristo'gan ipiñiarazten digute. Ez da aski, ordea, Emen galdera batek irtetzen digu bidera: ta nor dala uste duzu au?

Kristo'ri geron buruak eskeiñi edo Kristo'gandik aldegitoko unea dugu onako au. Geron buruak eskeintze ontan ezagutuko dugu nor dan Kristo, ez bestela. Ta maite izatea orixe da, maitearen esanera ta gogora makurtzea.

Guri bere bizia emateko eran kristoren barreneraiño iristeko bidea ez da logikazkoa noski. Ez da, gure burubideei eskerrak, Kristo'ri baietzá ematea ere. Maitasunaren begi sarkorrak baizik ezin dute ezagutu maitearen misterioa. Kristo'gana maitasunez itzultze oni "siñismen bizia" deitzen dio Idazti Deunak.

Itz batez, Kristo'gan bere begirada ezarri ta Aren eskuetan erabat maitasunez jartzen danak izango du bakarrik Kristo'ren misterio zoragarrian murgiltzeko zoriona. Maitale zorionekoarentzat dago irikita misterio onen atea. Kristo'ren eskuetan jartzea da naitanaiezkoa. Jainkoiari beren biotz-gogoan ateak isten dizkiotenak ez dute Kristo'ren biotzera sarrerarik izango.

Ba-da beste arrazoi bat ere kristo ezagutzeko maitasuna bear dala ondo agirian jartzen duana. Kristo Jainko da. Jainkoa berriz maitasun. Orregatik Kristo, mundura azaldu zaigun Maitasuna.

Maitasuna maitaleak bakarrik konpreni dezake, iñola ere ez epelak eta interesgabeak.

Maitasun-sugarraren eraginpean diarduanak eragozpen guztiak ausi, Kristo'k, gizona denez, bere gain dituan giza-estalki guztiak urratuta, Jainko-misterio arrigarri au xurgatuko du poz-

eztitan. Maite duanarentzat, Kristo'ren estalki oietan bertan argi-erraiñu zerutarrez askoz ederra-go apaindua azaltzen da Bere irudi bikaiña.

Ona emen, maitasuna bide ta maitasuna elburu, Kristo'ren misterioa ezagutzerakoan.

Osa'tar Eusebi
-Laterandarra-

Michael Schmaus'en "Von Wesen des Christentums" liburua izan dut aurrean.



FILOSOFIA, ZERTAKAKO?

Filosofiaren kontra esan direnak eta egunero botatzen zaizkion iraiñak emen biltzea aspergarri litzake noski. Onegatik bidenabar aita-tuko dizut bat edo beste.

Papini'ren luma barkagaitzak onoko au dio: "Jainkoaren biozberatasuna ez bada, ez da munduan zuen zozokeri-sakona berdindu dezakenik". Ba-da esatea! Baiña iseka ta irri gaiztoak gorabeera, gizadiak adimenik biribillena Filosofia opaldu dizkiola esatera ausar gaitzke: Aristotele ta Platon, Augustin eta Tomas eta Eskoto, Descartes eta Kant eta Hegel... Guziok filosofilari izan ditugu, eta denak espiritu zuur ta buru argikoak.

Alere, Zizeron aundiak ere ez zituen pizti auek bere gogoko, ta onela epaitu du beren lana: "Ez da munduan filosofilariren bat esan ez digun itxuragabekeririk". Eta Zizeron ez zen adarra azkenik jo ziena. Arrezkero jaurti zaizkienak! Gertuago Hebbel'ek parre-algaraz agurtzen ditu gixonok: "Filosofia giza-gaitz berezi bat baiño ez duzue".

Batzuentzat, bizitz-eztenkadak ixillik eramatea Filosofia da, ta Lessing'ek ironi-piper-

miñez onelatsu dio:: Ez dire gutxi, egi-maitasunak ez-baiñairakas-aulki txanpondun batek eragiñik, filosofilari sakon gertatu zaizkigunak.

Baiña, oiek orrela, aunitz dire, geiegi, Filosfiak lilluratu dituenak, jakintza zabal au beste gabe gaitzets dezagun. Jakintsu askok berari eskeiñi dizkiote bizitzak ta Filosofiarentzat izan dituzte goralmenik garaienak: Filosofia da jakiterik bikaiñen ta osoena, Filosofia munduaren argi ta fedearen beraren aurki-bide.

Ba-da, beraz, eritzirik nun aukeratu. Onegatik ikus dezagun Filosofiaren balioa edo deusezerakoa.

FILOSOFIA IZAN-JAKINTZA.

Gizonon eritasunik sendaeziñena izangosea dela esaten badut, ez dut uste beste munduko egirik argitaratu dudarik. Izan ere, zer izan diteke guretzat izanean beti ta beti murgildurik izateko leia baiño zuzterrekoagorik. Olako edo alako izatea auntzaren gaberdiko eztula da izate soin-gorriaren ondoan. Au dugu gure arazo ezin zokoratua: "Izan edo ez izan: orra or gure arazoa", Hamlet'ekin esateko. Baldin bagera izan, bost ajola guri bestelako ingurukiak; auek gere alde nolabait jarri ditzazkegu, baiña izana erantzi daki-gunetik ez dugu zeregiñik.

Ta ez pentsa zure edo nere kezka duguna. Baita zera ere! Mundu brok izan egin nai du ta ori gabe ez dago ezertaz kezkatu ta biotz errez ibilli bearrik. Ken iozu santuari bere Jainkoa ta pikutara joango zaizkizu aren santu-amodioak. Emazalea ere zerbaitetan dabillenaren uste zindoenean bizi da: izan-ziurtasun ori galtzen badu, orra gizonttoa gixajo ttenttel eginda.

Jakintsurik jakintsuena ere ez dabil ezerezaren atzetik. Orrek ere nunbait ba-den egia nai du. Artistek ederraren billa diardute, eta, zer esanik ez, auek ere edertasun ori ba-dela diote erekiko. Giza ziztriñena edo bikaiñetan biribillena izan, guziok uste galduezin onetan finkatuak ari gera. "Izan edo ez izan: ori da gure problema".

Zientziek izanean dagoen zerbait dute

beren jomuga ta billakizun, ta binbitartean, ibaia zubipean darion bezela, zerbait auon oinarri ta eusle den izana igesi doakie atal-jakintza auei. Ba-da, ordea, izan orri bereziki begiratzen dion jakintza barnekor bat: onatx Filosofi guziaren sustrai-elburuak. Giza-goserik larrienari dagokion erantzuna. Beste jakintzak azaletik dabiltz, Filosofia bakarrik dugu izadiaren azken ondoraño doana.

Filosofia da jakintzarik guziekikoena, izana bera bezin zabal eta ondogabea. Berak batzen ditu itxaso ertzgabe onetan izaki denak. Jakintza orokorra da Filosofia, ta ez da bera ainbateko besterik.

FILOSOFIA. GIZA-JAKINTZA

Balmes'ek bere "Filosofia Fundamental"-ean atalburu luzeak ditu berak "Ciencia trascendental" deitzen duen jakite bereziaz. Dalako au edozeren gaindiko jakintza bat izango litzake, ta onezaz itz egitean zera dio: Filosofia inguratzen duen arriskurik maltzurrena jakin-min neurrigabea da. Edozeren gaindiko jakintza orren lorategirako bidea itxirik baidu gizonak; izadia batasun eta argi berdingabetan bilduko duen ideiarik ez deza-kegu bizitza onetan atzeman.

Au guzia egia da noski, baiña berak dion jakin-egarri ori gure lagunik leialena ere ba-dugu. Aurraren ainbat galdera ajolagabeek edo gizon bizardunaren adzi larrienek iturburu bakarra dute: jakin-gosea. Gizonok ez genezaioke gere izaerari ukorik egin; pekatu astunegia litzake ori. Ez, gure barneari leialki erantzun bear dugu.

Jakin-gosea ain gizatiarra dela ta le-entxeago aitatu dugun izan-leia ain gurea izanik, bearrezko zaigu bi oiei erantzun dezaieken zerbait orra, berriro, Filosofia bide-lagun. Izakien le-entziko auzia izatea da ta guk, adimendun gerallako, galdekizun ori adimen-argipean aztertu bear dugu. Arrazoikiro jokatu bear bada, ez da bidezkoa gure prolemarik aurrenena zokoratzea, ta onetarako ere Filosofia da gure bidea. Ez da besterik. Izan- eta jakin-goseak dire giza-ciartzunik ixilgaitzenak. Gizadiaren aragia bera ere

danbatako onek zartatzen du, barnetik baidator, ta geranak gaitzeziño ez da onetan ixil-unerik, ez pakerik.

Areago oraindik, an-emen askotxotan entzun oi dugu arako ura: "Ba! Filosofia... Xo-xokeriak! Odeietan bizi dituk oiek, moteil!" Ta ori esan ondoren, bapo mutilla. Ori berá ez ote da, ba, filosofi bat? Ez dago dudarik. Jokabide orrenpean Weltanschauung bat ba-da; beti ere, izadiaren ikus-molde bat derriorrezkoa dugu. Kontzi osoz onartzen ez dugunean, atzeko atetik datorkigu gure uestezko etsaia. Filosofia giza-bearkizun bat dela, zergatik ez gizonki, aurrez-aurre ta duen inportantzi osoarekin argitu arazo au? Ez ditzagun gere adimenak gezur-askabide batez engaiña. Filosofiari iseka egiten dionak lapikoa maiteago izatea ere -ezin uka- filosofi bat dugu, kaskarrenetan kaskarrena bada ere. Filosofi batan morrontza, bearrez, bizkarreatzekotan, izan gaitezen leenik arrazoiki filosofi orren jaun eta jabe.

FILOSOFIA KRISTAU JAKINTZA

Filosofiak espíritua piztu ta erne egiten du, ta au, besterik gabe, ondasun bikaiña da. Filosofia gabeko kristaua eskumotz gelditzen dela esatera ausartuko nintzake. Kristaudian ainbeste zipozkeri ikusten baditugu zergatik ote da? Aragia, aragia... aitatuko didazu. Bai, noski, aragiaren argala... Baiña ori bakarrik ote dugu, gera? Ezetz esango nuke nik. Zenbait kristau-buruk filosofi biziz ornituriko gogoak ta bere bidez espíritu-zentzuak zorroztuak balituzte, munduaren ainbat auzitan bestelako eritziak izango lirake. Gorputz eta arimaz, eguneroko lapikoa zaitzen gauden bitartean, ez dugu kristau jokabide aldakaitza, bear bezela eguneko espíritu-ara-zoetan zertuko. Gogo ernai bat gabe, ez da munduan prolemarik larriena ere ikusaraziko ñigunik. Ez arranotan!

Filosofia, benaz eta gogo guziz, bertu -ta ez tesiak esamifietarako nolabait ikasi, duenak izango du argi ta kemenik kristau legea osorik ta konponketa gabe ezagutzeko. Ta ori ga-

be... giltzurdiñ eta errai guzien beazun gaizto-
ak izango dire jokabideetan gidari.

Gure adimen garbiak izan bear du i-
zar biderakusle, munduko gezur-zulo dugun prensa-
zurrunbilloan gal ez gaitezen. Gure salbazio-bi-
de den adimen-argia lañoak estali ez dezan kris-
tau Filosofi sendotzaille bat bear dugu.

Intxausti'tar Joseba
-Arantzazu'koa-

52'gn. orrialdetik dator:

- 1) Ezin esan gizakera bakoitzarenak, bestela
sekularioan ez dut amaituko lana-ta.





**KULTURA
JAKINTZA
ANTZE**

ANTON TXEJOF

G I Z O N A.

"A.B.A.Tinojof'i.- 1892'ko otsai-
llak 22. Mosku'n.

Barka nazazu, Bladimir Alexeiebitx ja-
tor orrek, ainbeste itxoin-arazi dizut-eta.

Nere bizitz-idazti edo biografia eska-
tzen didazu. Ara ba: 1860'an jaio nintzaizun, Ta-
ganrog'en noski. Bertako Lizeotik 1879'an irtena.
Mosku'ko Ikastegiko urteak 1884'an bukatu. 1888'-
an Puxkin saria kolkoratu nuen. 1889'an, Siberian
barne, Sajalin'era jo nuen, itxasoz bueltatuz.
1891'an Europa'n izana nauzu; bai ardo bixirik
probatu ta ostrak jan ere. 1892'an aparteko par-
randa bota genduen, jai egun batez, Tinojof eta
biok. Strekosa'n lenengoz 1879'an asi nintzan. Ne-
re lanak oetxek dituzu: "Ipui mordeillokatuak";
"Illunabarrari", "Ixtorioak", "Jende nazkatiak" ta
"Liskarra". Danen antzera, erromantika aldetik e-
ben egin dut, baiña ez ainbeste ere. Izkuntza guz-

tiak, arrotzak ezik, jardun dira nitzaz. Alare, Alemanitarrek asko dala itzulia naute. Serbioei, Txekoei ta Prantzesei ere gogoko natzaie. Amairu urte nituela maitasun-kilimaren mixterioak unki ninduen emeki-emeki. Ondo konpontzen naiz nere lagun sendagaille ta idazlariekin. Alargun naiz. Errentatzo bat edo beste edukitzea gogoko litzaidake. Medicina ez dut zokoratu; udaran autopsia batzu egiten ditut.

Tolstoi dut idazle kuttunen. Sendagailleen artean miresgarri zait oso Sajarin. Dana dala, broma pixka bat erre dut. Nai duzunatzaz idatziz. Gertaera mingarririk ez baduzu, lirismura jo.

Ezazu osasun. Goraintziak alabentzat.

A. Tx."

Apropos ezarri dut nere lan-buruan eskutitz auxe. Sinistu berari, gezur famik ez du Txejof'ek-eta. Noiz jaio (tira, irakurle, aurtan eun urte...), nun ikasi, zer idatziz, nundik nora ibilli, ze ofizio bizkartu...dana, lerro gutxitan txortatua. Ori ez, noiz il zanik ez du esaten. Nik esango dizut, il baizan gizajoa -gizona izan-, 1904'an il ere, alegia. Tamalez gazte xamar lurpera joateko, ale gozoz makurtua zegoen zugaitz jatorra. Zer dira ba 44 urte? Bizitza luzea labur bada, bizitz-erdia labur ta erdi.

Eskutitz ortan bere bizitzaren ezur legorra eman digu, metaren aga. Narru gorrian azaldu zaigu. Ia jazten dedan zerbait, ornitzen eta mamitzen. Txejof gizona ezagutu bear dugu lenen. Gero, bere lan-tankerari ekingo diogu.

Txiro bizi bear izan zuen Txejof'ek. Diru gosez. Bere aitak, komerzioko artu-emanen baiño musika ta kantu erlijiosoari emanagoa, patrikak antzu zituen beti, ximurtuak. Betiko kontua! Xentimorik ere ez musikalari gizajoak... Anton semeak txanponak pillotu ta aoak bete bear, medicina ikasten zuen bitartean, tarteka-marteka, umorea zerien errebixtetan luma sartuaz. Goseak itzeginarazten zion nunbait... Ala esan oi da. Sasi-izen edo seudonimo ok erabili zituen: "Gizon gibel gabea", "Gaixo gabeko sendagaille", "An-

tonson", "Gizon errea", "Bere anaiaren anai", ta batez ere ain ospetsu egin zuen "Antoxa Txejonte", bere izen-abizenak ironi apartaz aldrebestuak.

Aldi artan, nunbait lan geiegi, gaixo erori zen. "Ipui mordoillotuak" 1886'an argitaratu zituen. Kritikoan eta lagunak, danen abegi gozoa izan zuen lan orrek eta lanaren egilleak, jakina. 1888'an medikutzari agur egifik, literatura soillari lotu zitzaion, aski famatua baizen ordu-rako. "Puxkin" saria jaso zuen boladan, emotipsis gogor batek jota, etzan bearra izan zuen. Zera zion: "Ba-du zerbait, sualdi baten argi bailitz i-karagarri, ezpañetan beera ixuri doakidan odolak".

1899'an, naiz eta ondo gorputzari kon-tu egin, gaixotasun zaar berak berriro zigortu zuen. Orduan, Mosku-inguruko "Melijoba" txaleta sal-du ta Krimeara jo zuen, beste bat erosi bearrean. Emen asten da bere bizitza laburraren atalik lil-luragarriena, oparoena: Mosku'ko erti-teatrorekin-go artu-emanak, dramalari bikain biurtuko zuen ja-zokun ederra; Olga'rekingo ezkontza gozoa. Bere bizitzako lan sakonenak, bereenak, orain, ementxe josiko ditu. Txalet txuriak, bere gustora muiño batean tinkatuta, itxas-bizkar sorgiña zuen oiñ-pean. Aize ura! Kresal usai gordiña... Olatuen orru edo uintxo urdurien marmarra! Ta, ikusi? Be-giak urdindu, gizon. Xoragarri zen benetan autatu lekua.

Txejof lorategian ibiltzen zen geien, bere bi txakur Kinina ta Bromuro (au kimika usaia!) aldamenen zituela. Orpoz-orpo segitzen zituen be-re Olga xarmantaren garaipen eta txaloak, aurkez-lari baizan "Olgaiño". Bere "zalditxo", bere "ale-manitartxo" deitzen zion. (Olga Kniper'ek doix-tar odola bai-zeramakin, naiz eta zartu xamarra arren).

Emendik, Krimea'tik, 1904'an anka egin zuen, aberritik kanpo azken arnasa emateko.

Errusi'ko literaturan Txejof'i dagoki-on lekua autatzeko, ikus ditzagun lenen bere den-borakoak eta ingurukoak. Puxkin eta Gogol, Anton jaiotzean, errian zutik, bizirik zeuden, naiz eta bere gorputzak illobian etzanik egon. Dostoiowski 1881'an itzali zen; Turgenef, 1883'an; Tolstoi, 1910'an; L. Andreief, 1919'an. Agiri danez, oillo-

tegian oillar asko... Txejof aibesteen artean oil-
lotuta geldituko ote zaigu? Utikan! Ez eta ez! Pa-
parra arro-arro, gandorra tente, dotore jo zuen
kukurruku gure oillar galtzadunak. Zail zirudin...
Izan ere bai... Baiña, or dago ba koska... Zoli,
garbi-garbi jo kukurruku... Alare, etzen arroa
Txejof. Berez eta naiez apala zen oso, umil.

Tolstoi'ren aunditasuna Txejof'ena
baiño errexago da antzematen. Tolstoi'ren aurpegi
garratzak zulatu egiten gaitu. Txejof'ek aurpegi
arrunt, danon antzekoa du: otza, geza. Betaurreko
oiek, bizar zorrotz orrek, jantzi burges oiek,
mediku bat geiago dugula aurrean adierazten digu-
te. Besterik ez. Ala bear ere: " gizon ondrauari
ez dario arto bero usairik".

Ixilla, gordea, sufrittua izan gi-
zona. Bearraren estualditan, gaixoarditan, etzeni-
on sekula min-oiurik , itz saminik entzungo, Naiz
erlijiodun ez izan, ba-zuen erlijiodun azaltzen
geran askok baiño maitasun, karidade geiago. Nola
maite gizona! Alkar-izketarako beti prest; errexo,
lilluragarria, kaixotasun amaigabekoa berea. Usao
bezin tolesgabe, zintzo. "Bizikera errexago ta
arruntagoari lotzeko gogoia sortzen zaio bati bere
aurrean", zion Gorki'k. Bein eskola maixu bat, be-
rebiziko sermoi dotorea Txejof'en aurrean bota-
tzekotan urbildu zitzaion. Asi zen Anton'ekin iz-
ketan eta... zera, lotsatu gizona, eztarrian ito-
tzen itzak. Orduan itz errex eta arria bezin pixu-
ak erabili zituan: "arro xamar etorri naiz, ni
ere norbait naizela age tu naienan... Orain, gi-
zon on eta maitagarri bat bezela uzten zaitut. Da-
na ulertzen duzu zuk... Gauz ederra orixe! Esker-
rik asko, ba-noa. Pentsamentu auxé daramat mui-
etan gogor itsatsita: "Gizon aundiak, tolesgabenak!

Ainbeste idazleen artean bat geia-
gotzat jotzen zuen bere burua, Bere ertiatzaz be-
re bizitzaz bezelaxe jarduten zen.

Bein galdetu zion Bunin gazteari:
- Asko idazten duk? Ez? Ba, gaizki egiten duk.
Egin lana jo ta ke, beti, bizitza guztian.

Ta gero, egonalditxo bat egin ondo-
ren, aria eten balu bezela:

- Ipui bat idatzi ondoren, burua ta buztana moztu
bear zaizkiok. Ortxe sartzen diagu ziririk geien

itz lauzlari ok. Motx, oso labur idatzi.

Beste egun batez:

- "Zail da itxasoa deskribitzea. Ez dakizula ze arkitu nuen eskola-kuadernotxo batean zirkun-zarkun marraztuta? Ba..., "Aundia zen itxasoa". Auxe zen guztia. Arrigarri benetan!

Biziki itzegiten zuen Maupassant, Flaubert edo Tolstoi mingaiñean zuenean.

"Ezin dut jasan Shakespeare, baiña, alare, eziñago zure lanak", bota zion bein Tolstoi'k. Arren algarak au jakin zuenean. Elena Botzaris'ek dion bezela, Txejof'ek garraztasun ura gozatu nai izan balu, etzuen Tolstoi'k berak Shakespeare'k baiño teatro traketsagoa egiten zuela pentsatu besterik. Baiña, ain apal izan, atzitzaiion olako burutaziorik etorri.

Oso gogoko zitzaion ixtorio baten mami beltza, ezerez balitz bezela, petralkeri batez bukatzea. Modestira otsegi bat zen. Geroxiago jardungo naiz ontaz.

Il ondoren, bere zerraldoa(il-kaja) Alemania'tik Mosku'ra eramanean bear zela-ta, atean "Ostrak" idatzia zeramakian bagoi batean etzana joan zen. Berak au jakin balu... A, ze algarak! Ostra, parre egiten zekian ostra izan Txejof...

Olga panpoxak kontatu zuen au ere oso Txejof'ena dugu: "Etorri zen sendagaillea, Scherer, ta txanpaina edateko agindu zion. Eseri zen Anton Pablobitx ta doixtarrez esan zion, naiz ta erdipur-dika jakin, abotz indartsu ta betean: "Ich sterbe..." il zorian nago. Gero, artu edontzia, aurpegia nigana zuzendu, irripar goxo bat loratu, ta esan zidan: "Auskalo noiz edan nuen azken aldiz txanpaina"! Ustu edontzia, etzan bular ezker aldean eta betiko lo artu zuen..."

Orduntxe, leioa zabalik egon, mintxirrika beltz bat sartu omen zan bere biziko egal otsa ta zalapartan.

Errusitar jakintsuen, intelektualen erredutzat eman dezakegu Txejof. Kultura zabalduna izan, dogmatismuak uxatzen saiatu zen beti. Albo-koen eta urrutikoen iritziak begirunez, errespetoz ikusten zituen. Fedea, itxaropen betea gizonagan jarria euki, bizitza ederrago bat oni antolatzea zen bere xede gurien. Onela edo bestela, baiña be-

ti. Bai gauz arrigarria errusitar intelektual bantengan: politika kontuan ez batera eta ez bestera, erdi-erdian tinkotua gelditzea. Onela jokatu zuen Txejof'ek. Nazka ematen zioten politikari oiek, nazka. Ta nazkagarri orain Errusi'n egiten ari dirana: zera, bere eun-urtekoa dala-ta, eskutan darabilkiten komunismu zikin-ori Txejof pakatsuari ezarri nai diote, berak zerbait susmotu zuela-ta... Etzegoen gizon apal, xume arrenagan oraingo jauntxo paltso oien gizon-berdinketa lotsagarri orren kutsu arrastorik ere. Ez! Joera makurra oiena. Mandoari esne pertza jetzi nai. Irakurri izan balute Txejof'ek Alexis Plextxeief'i 1889'an Mosku'tik zuzendu zion eskutitza... Tira, tontea ez danarentzat garbi asko daude itz bete, llabur aiek. Txejof komunista zela... Ta, zergatik ez Kru-xef dramalari?

I D A Z L A R I A

Bi idartz-tankera artu genezatzkieke bere lanari. Bata, ipui-kontalariena ta drama ede komeri parregarrien egillearena. Bestea, dramalari utsarena, azken urtetako Txejof.

Ipui-kontalari ta komeri egille. Bi liburu baiño ez dizkiot irakurri: "Nere bizitzako ixtoria" ta "Nekazariak" (ipui txorta). Egia esan, beretzaz ezer jakin baiño len irakurri baintuen liburuxka oiek, ez nekien ze iritzi eman. Orri aietan, agi zenez, etzegoen ezer; dana zen arrunt, pstx... Igualekoxea Shakespeare'n "Hamlet" edo "Macbeth"... Alare, Txejof gustatu egin zitzaidan, ikaragarri gainera. Nik ez nekien ze argumentu e-ari-ipui aietatik atera, nola kontatu baiña nere-kixa nion: ze ederki, ze ederki dagoen ipui au, eta beste au, eta beste ura! Dana irakurri berri-ro ta berdin: "Bapo, Txejof!"

Gero, Elena Botzaris'en eta André Maurois'en lantxoak irakurri ditudanean, berealaxe kontaturatu naiz zein den Txejof. Bai, Botzaris, bai Maurois iritzi berdiñekoak arkitu ditut, adiskide. Nere barruan zalantzan, kolunpion zebiltzan iritzi lotsatiak oienak bezelakoxeak izan nai dutela oldartu naiz. Bai, danok ontan gaude: Txejof bizitza arrunt, erdipurdikoaaren emaille dugula. Edozeineñ bizitza ixil, apalaren emaille. Gauz

asko kontatzen ditu, ttipiak, ezerezkoak, edozei-
ñi gertatzen zaizkionak... Ta zer dugu, ba, bizi-
tza? Ez al da geienetan ttuntun otsik gabea, lai-
ñotsua, ixilla? Idazle askok eta askok zera egiten
dute: gaitzat gertaera edo gizon arrigarrienak ar-
tu. Pagadi batean deskuidon gaztain bat arkitzen
badute, uraxe, pagadiko gaztaina! Milloi gizonen
artean ero bat, madarikatu bat, "donjuan" bat,
moskor bat begiz jotzen badute, kitto!, uraxe,
beste 999.999 edo eroak, edo madarikatuak, edo
eme-ar utsak bailiran...

Beste ezpalekoa dugu Txejof. Danok da-
kigu, geuk ikusita, geron bizitza ta albokoarena,
ta albokoaren albokoarena, au da, geienen bizitza
geienean ixilla, apar-gabea, illun xamarra dela;
zarata, negar-malkoak eta par-algarak "batzuen"
edo "bein edo beinko" gauzak dirala. Txejof'ek
oso-osorik den bezelaxe artzen du bizitza. Pa-
tatak zuritu, ezkondu, jan eta bere kontrakoa,
il... edozer gauz. Danak du bere garrantzia ta e-
zerk ez du garrantzirik. Bizitza oso-osoa, bete-
betea, beti arnaska. Auxe garrantzitsuena: arnas
artu, azken arnasa eman: au ere "bizitzea" da. Gai-
ñontzekoz, au edo ura egin, ori ez da ezer.

Auxe atera diteke bere ipui ta beste
lanetatik.

Dramalari. Au dugu batez ere Txejof:
dramalari. Onatx lan batzuen izenak: "Geizi bara-
tza", "Iru aizpa", "Osaba Bania". Len esan dut no-
antzerki ta komeri umoredunak dituen, gatzez bixi-
bixi xuspertuak, ironiz zipriztinduak. Emen, oiek,
utziz, beste batzuetzaz jardun bear dut.

Bere "beretasuna" ondoen agertzen digu-
ten lanak orain gutxi aipatu ditudanak dituzu. Az-
kenekoak. Erromantiku kutsu pittin bat omen darie.
Unkigarriak, beraxka xamarrak. Alare, bera antzer-
ki alai, "vaudeville" antzekoa egin zuelakoan omen
zegoen. Ezin sufritu, esate baterako, bere "Iru
aizpak", onena noski, teatroan aragi biurtzean,
ain negarti ta "sentimentoso" arkitzea. Ura etza-
la berak egia. Ezetz eta ezetz. Eta idatzi omen
zuen: "Ikusi berria dut Stanisblaski'ren (au zen
"mise en scene"ko buru) "Iru aizpak"."

Ez omrn zioten esan nai zuena konpreni-

tzen... Parrez eta broman esan bear zena malkoa dariola ta egi-egitan esaten omen zuten alegia, aurkezlariek.

Ta alaxe da. Oso zailla da Txejof'en antzerkia bear bezela ematen. Inportantzi gabeko gauz geiegi ditu, artistek izkutuan bezela, bizitzan bezela, umil jarraitzeko. Txejof'en antzerkiko ertilariek apalak izan bear dute. On eta apalak.

Bere lenengo antzerkia "Itxas txoria" izah zen. San Petersburgo'n agertua. Porrot egin zuen. Txejof gizajoa erabat pasatua gelditu zen... Sekula antzerkirik ez idazteko asmoa artu ere bai. Nebirobitx Dantxenko'k eta Stanislabski'k eskatu zioten lan ori. Estriña etzuen eman nai, baiña eman zuen. Dotore lortu zuten aipatu gizon oiek. Danak arrituta, ao zabalik utzi zituzten. Ez Txejof bakarrik errusitar antzerkia ere arro-arro zegoen.

Berdin gertatu zen "Osaba Bania"-kin ere. Aurrena... utsa. Gero? Etxaferuak! "Iru aizpak" ere gaizki asi zen. Jendeari ez gustatzen. Ta berdin beste antzerki guztiekin ere. Baiña Stanislabski'k, gizona bizkorra izan, sartu zion, gustaerazi zion erriari Txejof'en antzerkia. Ondo eman bear baizen.

Txejof'ek, berak uste etzuen bezela, apal izan, iraun egin du. Gorki, Andreief-Botzaris'ek dio- pasatu xamarrak daude. Txejof'en gizon-emakumeak ez, nunaikoak, be ikoak baidira. Gure anai-arrebak ditudite. Orixe bear dugu: zerbait "gurea", idazlariak bere lanakin iraungo badu. Bizi da Txejof, naiz errusira "ostrak" zion bagoi batean eraman. An, Mosku'n, guda jeneral baten zerraldoaren ordez, berea artu omen zuten, bienak ondoan etorri omen ziren-da. Txejof martxa jeaz, soldaduen artean eraman omen zuten, jenerala ixil-ixilik, idazlearen lagunaren artean, lurpera zijoa-la. Bukaera parregarria ta ikaragarria auxe... Oso Txejof'ena au ere.

Bere ipui bat dirudi...

Olaberria'tar Ildefontxo

- Arantzazu'koa-

Lan ontan ok erabili ditut:

1. BOTZARIS, ELENA, "Indice", num. 135. pg. 211
2. MAUROIS, ANDRE, "Destinos ejemplares", p. 29.

KARAKTEROLOGIA^{REN} EN

BURUBIDEAK

SARRERA

Oso egunekoak ditugu sikologi gaiak. Bearrezkoak, esango nuke, gaur bizibideari ateak zabaltzeko. Eta agiritzat or dituzue Ipar-amerika'ko sikologilarien lanak nola ta noiz saletxeak apaindu, nola lagunak egin... ta bestaldetik, berriz, apaiz baten baiño geiagoren idaztiak bakoitzari dagokion aszetikaz. Bearrezkoa, bada, gaur sikologia? Ez, baiña, gaurkoa. Aspalitik dijóakigu azten. Ose peliki, bai, baiña azten beintzat.

Sikologia esatea anima-iztia esatea da, nere gerkera gaizki ez badabil. Orregatik toki bereziena gizonaren izakerak bear du, bere ezberdintasun eta berdifegitasun guztiak alde batera utzita; merezi ez dutenak, esan nai dut, baztertuta, denok baidakizkigu, edo bestela iñoiz ez baitzaizkigu aurreratuko...

Ez dira sikologia ta karakterologia berdiñak. Sikologiak gizona danaz, norberatasunik gabe aztertzen du. Karakterologiak gizona "gizon au" danaz ikasten du. Emen karakterologiari dagozkionak esango ditut.

Ez da ere berdin izakera ta aiera (carácter y temperamento). Lain Entralgo'k aiera

"jaiotzatik bakoitzari datorkigun zuzoeraldigaitasuna" dala dio. Izakera, berriz, "baietz eta ezetz-erako bakoiztasuna" dala easaten digu Klages'ek. Itz bitan: "bakoitza soil-soil" aierrari dagokionna. Bakoitza orain agertzen zaigunez izakerari dagokiona. Izakera, bada, aier gainean jasotzen da.

Izakera ez dala aldatzen diotenak ez dira gutxi: Plotino, Kant, Ribot eta... Ezta ez izakera, ez aiera, ezer berez ez datorkigula diotenak ere. Auen artean ospetsuenak Helvetius eta Locke ditugu. Danon jakinduria alare aillatzen dala usten det au geitxé izango dala ezagutzeraiaño.

Lenengo izakera eragilleak gurasoak ditugu. Bigarrenak barru ta aldamenekoak. Aldameneko auek zenbatu bakarrik egingo ditut luzatu ez nadin: egurardia, lurraldea, osasuna, urte-zatia, bizibideak, oiturak... Adibidez: beroak zuzperaldi azkarragoak eta gogoragoak daragizki; mendiak paketu ta bioztitu egin oi dute; gultzurrunekoak eta urdaillekoak erretu ta zitaldu, berriz; maite-miñak udaberrian eta udazkenean oi dira; laguneri ta oitureri zenbat zor zaion danok dakigu...

Bestalde, berriz, ez da oraingoxea gizonak sailletan banatzea. Bi joera oi dira: batzuk gorputz-animari begiratzen diote, nunbait dalako "nolako arpegia, alako barrena" zion erro-matarren esaerari jarraituaz. Besteak animari bakarrik. Aurrenak biotipologuak edo tipologuak, bakarrik, ditugu. Besteak karakterologuak. Sailketa auek ez daude baiña oraindik osatuak, ezta gutxiagorik ere. Alexis Carrel'ek dionek gauz sikiatria Quijote'ren garaian sendakintza bezela omen dago.

T I P O L O G I A

Grezi ta Erroma'n.

Ipokrates'i zor omen zaio lenengo giza-eratzeta. Gero zerbait Galeno'k osatu zun. Lau gizakera jarri zizkiguten: Odoltsuak (Sanguíneos), betillunak (melancólicos), aserrekorrak (coléricos) ta astitsuak (flemáticos). Tipologi au naiz eta etzala oso egia jakin, zeatzeztasun asko bai ditu, joan dan gizaldiraiaño jakintsu usteko guztiak erabili zuten. (I)

Gaurko tipologiari buruz:

Itali'n.

De Giovanni da Itali'ko gorputzkera ikastolaren (escuela de tipología somática) gurasoa. Berak eman zion gaur ain aipatua dan joerari asiera.

Batez ere gorputzari begiratzen dio: bi antzpean ikasten ditu gizonak: normotipo-ektipoari dagokionez. Normotipoa bear luken gizona da. Ektipoa, berriz, oraingo gizona bere akatsekin. Eta fenotipoa aurrean agertzen zaigun gizona. Normotipoak noraiñoko alde daramaion ektipoari ikasi bear da. Ona emen normotipo batzuk: besoen eta gizonaren luzaroak berdifiak bear dute. Papar zabalereak luzaro erdiaren ainbatekoa bear du...

De Giovanni'ri jarraituz eraketa au Viola'k osoagotu zun. Orrela gorputz aztuntasunari dagokionez ektipoa iru lerrotan kidekatu zun: megalosomatikoetan (kontuan izan itz bakoitzaren esanaia) normosomatikoetan, eta mikrosomatikoetan. Soññaren egiturari begiratuaz, berriz, brevilineo edo brakitipoetan -luze baiño zabalagoak-, normolineo edo normotipoetan -luze ainbat zabal-, longilineo edo longitipoetan -zabal baiño luzeago. Gizon osoaren gorputzarekikoari dagokionez: megalosplanknikoetan -sabel-aundiak- eta mikrosplanknikoetan -ziztriñak-, zenbatzen ditu. Era bakoitzean eunetik ogeiña omen daude. Osterantzeko eunetik berrogei naastuak ditugu.

Viola'k, auek jakinki, bakoitzaren izakera ateratzen du: megalosplanknikoak: sendoak eta makalak eta maitaleak ditugu, ume antzekoak. Mikrosplanknikoak: luzeak, azkarrak eta zaintsuak, oso gizonezkoak dira. Azkenez, berriz, auek ikusi, lege berri bat ateratzen du: "zenbat eta zama aundiagoa, eta ainbat eta gorputzkin (òrgano) azte urriagoa".

Pende dugu sail ontako irugarren sikologua. Ontzat arturik De Giovanni ta Violaren asmaketak sakonago jotzen digu. Barrujarioak (secreciones internas), zain eta azimenen langintzak (funciones nutritivas), eta burmuinezurretako (sistema nervioso cerebro-espinal) eraketa omen dira beretzat sikologi guztiaren sustrai. Bakoitzak gauza bat damaigu gure izakerarako: ormonak gorputzaren azimena; zain-azimenen langintzak zain eraketa ta egospena (funciones digestivas); bur-

muezurretakoan eraketak egingurea (actividad).

Geroxeago, gizonak gorputzaren eta gogoren bidez batasun bat dagila dio. Gogoak, baiña, soñaren laguntza bear dula. Gorputzean, berriz, bi alde bezela arki ditzazkegula: giza-itxura ta giza-gorputza. Izakera, bada, gizon osoari zor zaio. Aurrena Viola'ren soin-neurriz, (biometria) arkitzen da. Bigarrena, ormonaz eta zain eta azimenez. Irugarrena, berriz, test egiñaz.

Genotipoa, au da, gurasoengandik dator-kiguna, "bakoitzaren sakona" omen da. Fenotipoa, berriz, bakoitzaren itxura izakerak. Aurreneko zati-ketan bi gizakera dagizki: takisikikoak eta bra-disikikoak: aurrenak azkarak, sintetikoak, eler-ti zaleak, egon-eziñak, ariñak, aragi jaleak, oi dira. Ipertiroideoak eta ipersuprarrenalak, batez ere. Bigarrenak motelak, analitikoak, matematika-filosofi-zaleak, iraunkorrak, sakonak, haimendun-aundikoak, burutsuak, belar jaleak: iperparatiroi-deoak, iposuprarrenalak eta ab....

Azkeneko zatiketa ormonaen lan ugari-ari edo urriari begitatzuz dagi. Orrela beren i-zenak adierazten duten bezela iper... edo ipo...-ak izango dira.

Gizon eredu auetatik: iperinterztizi-al eta ipersuprarrenal-brevilineo-astenikoak, betillunari; iperinterztizial eta ipopituitario-lomgilineo, astenikoak, asarrekorari; ipopituita-rio ta ipertiroideo-brevilineo-astenikoak, asti-tsuari darantzuiete.

Egiaren urrena auxe dabillela esango nu-ke. Danok dakigu ormonaen garrantzia; bai ta gorputzaren animakikoa ere. Alare, eraketa oni praktikotasuna falta zaiola deritzait. Gaiñera, ez ote zaio ezer tokatzen naimenari izakerakiko?

Aleman'i'n.

Kraepelin eta Bleuler'en teoretatik abiatzen da Kretschmer. Bere iritziz, sikosisa tipo bakoitzaren era berezieta baizik ez omen da. Alde bat, bada, biometri danak eta giza-itxuraren irarki edo ezagugarriak ematera datorkigu. Orre-gatik Pende baiño ariñagoa azaltzen zaigu.

Iru giza-itxura jartzen dizkigu: leptosomikoak -luze ta igarrak-; atletikoak -erdikoak-; piknikoak -motz eta sendoak-; leptosomiko-piknikoak Pende'ren takisikiko-bra-disikiko-eri darantzuiete. Oartu Kretschmer'ek eraketa oni geru erantsi ziolá atletiko tipoa.

Gorputz itxura aueri anima era bana dagokie. Leptosomikoari ezkizotimikoa, ta burua galtzean ezkizofrenikoa. Piknikoari, berriz, ziklotinikoa ta ziklofrenikoa. Beste berriz gero zatitzen ditu tipo auek.

Gauzak, baiña, gutxiegi bereizten ditu. Batasunik berriz, etzaie arkitzen ezkizotimikoeri. Naiko akats deritzait ere gizakera ikasi nai ta osasundunak aukera bearrean, burutik daudenak ikasgai artzea... Ala ta gúztiz cere, ta bear bada orrexegatik, gaurko sikiatra geienak eraketa auxe dute estimatuena.

Jaensch'ek, berriz, eidetismoa ta giza-gogoaren batasuna jartzen ditu bere tipologiaren oiñarritzat. Ez da erreza asmatzen zer eta nola daraman bere langintza, ezta osatu dun ere... Zerbait, alare, garbi dago: bitan erdibitzen ditu gizonak: osatuetan eta osatzekeetan. Aurrenak gogo lanetan gogor eta batasundunak omen dira, sintetikoak eta ameslariak. Besteak lan banakoak, analitikoak, kanporakiko gutxikoak.

Soiñari dagokionez aurrenak begiaundiak. Bigarrenak begi mazkalak. Gaxokertasunari begiratuazbasedowoideak eta tetanoideak. Berriz zatitzen ditu osatuak eta osatzekeak barrukoietan eta kanpukoietan... Jaench'en barrukoi osatuak eta Kretschmer'en ezkizotimikoak berdintsuak dira, baita barrukoi osatzekeak eta ziklotimikoak ere.

Sikologu asko dira ustari aueri ez diotenak iritzi aintzakotzat artzeko modukoak. Eta arrazoiz: ibil-bideak izakera naasten omen du alde batetik; bestetik, berriz, zorionean sartu zitzaion edo sartu zun endazalekeria (racismo) eta auskalo nolako naaspilloa egin dun!

Iparameriketa'n.

Dezente urte dira Sheldon'ek bere aurreneko ustari ezagugarriak mundura jaurti zizkigula. Estadistika ta alkar-izketaen bitartez

egiñak ditu. Bai, ordea, sakonki! Ba-dira berea degula tipologi onena diotenak. Beste batzuk, berriz, karakterologuak batez ere, aitatu justu-justuan eta naikoa..! Ama-sabelean dagon umearen aktodermo, mesodermo ta endodermoaren aztea ta barru-jarioen langintzat, jartzen ditu, batez ere, bere tipologiaren oinarritzat. Orrela iru gizalerro dagizki: endomorfikoa -gizena-, mesomorfikoa -erdikoa-, eta ektomorfikoa -igarra-. Gorputz-kera bakoitzak anima era bana eskatzen du: endomorfikoak, biszerotonikotasuna -sabel zalea-; mesomorfikoak -somatotonikotasuna- gorputz-zalea-; ektomorfikoak, zerebrotonikotasuna -buru zaleak.

Kreschmer'en tipologian, berriz, gizakera aueri piknikoak, atletikoak eta leptosomikoak darantzuie. Sheldon, baiña, Kreschmer'en aldean ondora joan zaigu, eta batez ere, Kreschmer'ek baiño ezagugarri garbiagoak eta zenbatuagoak egokitu dizkigu.

Frantzi'n.

Sigaud izan zen gaur Frantzi'n agertzen zaigun tipologiaren eragillea. Mac Auliffe eta Corman eta... batu zitzaizkion gero. Soin langaiak aztertzen dituzte aurrena (aparátos anatómicos de la vida); arnas, urdail, bur-muin eta erroen lanabeseh eraketari begiratuaz (constitución de los aparatos respiratorio, gástrico, cerebral y muscular). Auetatik zer bizigai nabarmendu alako soin, aier da izakera.

Arpegiari begiratuaz, berriz, bi eratako gizonak bereizten ditu: arpegi zabalak eta arpegi atzetuak. Arpegi zabalak bitza patxadan eraman dutenak omen dira. Arpegi atzetuak, baiña, bizitzaren aurka lan eta lan ari diranak. Arpegi atzetuak iru erakoak omen dira. Bekoki atzetuak -burrukalari burutsuak-, albo atzetuak -burrukalari jatorrak-, eta okotz atzetuak -burrukalari atzetuak-.

Ezagugarriak garbi daude. Ariñegia, baiña, deritzait tipologi au. Bestalde, berriz, Lamarck'en ikasle oneri bezela, lako determinismu kutsu bat sentitzen zaie.

(jarraitzeko)

Baztarrika'tar Daniel, S.J.

GEORGES BERNANOS

Lan onen egilleak gure txaloa irabazi du: bera dugu idazle gazte "prakadunetan" gure deiari erantzun dion leenengoa. Bejondeizula, Mikel, eta betoz zure atzetik beste aunitz.

Z.O.

BIZITZA

Paris'en jaio zen, 1888'gn. urtean. Aitarene aldetik espainiar kutsua ba-du. Jesuiten ikasle Vaugurard'eko ikaste-

txean.

Amairu urtekin etxeko liburutegian "La Comédie Humaine" arkitzen du. Eta lilluraturik mundu berri onen barnean murgiltzen da gau t'egun.

Lege-gizon.

1913-1914. Asteroko baten agintari, "L'Avant Garde". Emen iaulkitzen ditu bere gaztaro roko politika-ideiak.

26 urtekin gudari.

1926 arte ez du oraindak ezer argitara eman. Ordurarte oitura zun aldian-aldiz lerro ba-

tzuk idaztea gogoak eragiten zionean, trenetan eta kafe-etxeetan beti. Baiñan idazti bat antolatu, ezta pentsatu're. Egun batez erakusten dio bere lagun R. Valery-Radot'i idazki aietako bat eta: "Arrigarria da! Baiñan liburu bat idatzi ahalen duzu?" Denbora gutxi barru "Sous le Soleil de Satan", argitaratzen du. 1948'gn. urtean iltzen da Frantzian.

Bernanos erri batetik bestera ibilli zen bizitza guztian inun erroturik gabe: Palma de Mallorca, Frantzia, Brasil, Frantzia berriz ere, Tunis...

NOBELA-GINTZA edo TEKNIKA

Ez da erreza teknika billatzea barnerainez idazten duan nobelista batean. Inspirazioak eramaten duan indarra teknikari kentzen dio. Origatik Bernanos'en eleberrietan ondo eratu gabeko teknika. Izan ere nobela bat ez baita zenbait gertzukizunen jarraitzaille soil bat, poema metafora suma ez dan bezela. Eraikintza bat bear da dena bat egiteko.

Bernanos'i ori falta zaio. "Monsieur Quine"-en ez dago ekilibriorik, zatiak bata besteren atzetik datoz, itxuraz logikarik gabe. Bakarrik "Journal d'un Curé de Campagne"-n irixten du batasuna, gogoia teknikari moldatuaz.

Alare, beste zenbait puntuutan bezela paradoja baten aurrean gertatzen gera emen ere: teknika du gidari autore onek.

Auzi au garbitze arren beste problema zabalago batera joko dugu.

Bitara bereizten dira, besteak beste, literatura edestian nobela sortak: edo nobela objektiboa (novela de situación) edo nobela subjektiboa. Bigarrena aitorketa eta azterketa bat bezela da: egillearen aitorketak edo notiñenak, eta egillearen azterketa notiñen baitan eta gertaeren esan-naian, gauza denen sinbolismoa azaldu nai balu. Au da nobelista zaarren teknika. Egillea da nobelako munduaren jaun eta jabe.

Oraingoa eleberria besterik da: mundu orrek (nobela bakoitzekoak, alegia) ba-du"bere" lege ta espiritua egilleagandik'at, eta berez doa edatzen eta mugitzen probidentzirik gabe. Gaur-nobelista ereduak (Joyce, Kafka, Dos Passos,

Faulkner, Sartre...) objetiboak dira, itxuraz lirikarik gabe, izparringietako kronika bat bezela. Eleberri auetan ez da ezer azaltzen, ez esplikatzuten, mutu geratzen dira irakurleak ematen ez badio sentidurik orrela nobela-objetiboa, besteak baiño askoz geio subjelibatzen da.

Bernanos bi joera auen erdian geratzen da. Jabetzen da geiegizko itz-jarioaren alde txarraz eta idazti bakoitzaren asieran murgiltzen gaitu bat-batean, gertaera baten biotzean. Izututa bezela gaude ikusten dugunaz eta somatzen dugunaz. Ala, esate baterako, "L'Imposture"-n: Abbé. Chevancen gogo-agonien gertakizuna barrendik azaltzen zaigu; ez egilleak kontaturik bezela.

Bestaldetik geiegi esan bearra dauka ixil geratzeko, eta maite du azterketa, azalpena lirismoa. Zergatik hestela idatzi ditu ainbeste panfleto eta ain ederki? "Les grandes Cimetières sous la Lune" (Españiako gudari buruz), "Nous autres Français" "Lettre aux Anglais"...

IDAZKERA ARRUNTA

Nerekiko dut Bernanos'en estiloak ez daukala garrantzi aundirik literaturaren etorkizunerako. Ez du idazkera edo estilo bereizirik, Steimbeck, Hemingway, Camus... bezela. Ez du ezer erakusten onetan.

Bere barne-giarra ain indartsua ezpaltiz erretotiko bat izanen litzeke dudarik gabe, berri txu aspergarri bat. Zorionez barne-e ainak eta ats aundiko lirismo batek salbatzen dio eta bizitza ematen, bizitza urduria bere prosari.

Idea bai, espiritua, irudia, sentipena bere-berea du. Esaera arrunta, XIX'garrengoenetik ez ain urruti.

BERNANOS ETA BESTEAK

Bernanos, Malraux, Camus'engan gauza bera billatzen dut, gizarte baten kritika eta mundu berri baten somatzea.

Ez dut maitee Bernanos kristau delako soilik. Ateo diranak ere maite dute. Beraz bere obra maitatzean ez ditugu ideiak maitatzen, artea baizik. Eta artea filosofia gaiño altsuago da onetan; nai ta ideia deseindu ertiak dirau. Hei-

degger onartzean Kant eta Descartes baztetu egiten ditugu. Sartre'ri fede ematean ez dugu Marcel'en filosofian sinisten. Baiña maita ditzakegu erabatean Montherlant eta Malraux, Sartre ta Bernanos. Auek maitatzean ez dugu sistemarik nai, damaiguten mundu bortitza baino. Ideia baino bizitza naiago dugu, filosofia (=ideia) baino naiago ertia (=bizitza), egia baino baloreak.

KRISTAUTASUN ERABERRITUA

Kristautasunaz ematen digun irudia bortitza da. Zuhurra, idealismuaren diztirak arren. Ideia bat liraiña baiñan gogorra, bere irudi fisikua lez (begi idealistak baiña zorrotzak). Bikotasun-dualismu au (idealismu-errealismu, gogolurra, pekatu-grazia) da ainbeste nobelista katolikoan urduria erne duena: Mauriac, J. Green, G. Green... Ortik dator nunbaitik ere oraingo nobelistikan somatzen den bizitzaren sentipen larria. Frantzesetan batez ere.

Ez da geiegi arritzekoa, Frantzia'ko katolikotasunaren seme baitira. "orden eta reforma moimendu latzenagoen ama. Sortaldeko kristaudiak erne dituan buru ta biotz moralistanagoena" (F.Heer, "Le Catholicisme Européene" idazk., "Quelle Europe?"-n, 101 or.) Bainan ez da soilki irudi bat Berbabos'ek damaiguna. Bere gogo-egin-egonak, jasoak, biurria, bizi egiñari, egiñik dagoen forma edozeiñi, kristautasun eraberritu baten berri damaigu. Ura bezela da; errealidadetik irudia artzen du, ta bere ezin-egonean zerbait aldatuaz, jaulkitzen digu, xarmantagoa noski, bainan erdi lausotua, linea bereizirik gabe. Kristau argi ta poeta baten irudia.

Alde batetik diztira beteriko kristautasun batean amets egin badu, gizarte katoliko batean, kristau-politikan, zeieñek berak baiño geiago sentitu du bizitza umil eta soilen xarma? "Le Journal d'un Curé de Campagne"-n kristautasunak soiltasunaren sendotasuna dauka.

Ez da ez noski espiritu fuerte bat. Gizonaren txikikeria ta banitatea zigortzen baldin badaki, maite du ere aurren alaitasuna. Lizunkeria gorroto badu, gorroto du ere alakoan garbitasun leñestua.

Gazteak, aurrak, santuak eta poetak bakarrik salbatuko dira. Eta eleizak erreformatoreak baino poeta ta santuen bear geiago du.

DENA DA GRAZIA

"Dena da grazia".

Bernanos'ek maite du iritzi-argia (nola esaten da euskeraz "lucidité"?). Baiña badirudi iritzi-argiko gizon santu ez bada desesperatu bat, ots, kondenatu bat izan bear lukela, naita nai ez.

Ez du bereizten bi mailla oiek besterik: mundu ontan dena da grazia edo dena da pekatua, gizonaren tontakeriak ezik.

Beraz, zertarako teologuak ainbeste kuidadu bi estatu oiek bereizten?

Teoria ontatik landa, zeinek jakin grazizko edo pekatuzko bizitzan bizi den? Zalan-tza ta urduria dabil bere eleberrietake zenbait apaiz santuren eriotzaren inguruan. Eta grazi izpi bat beste arima gogortuenean: ala Abbé Genabre' ren eriotzan.

Bainan santua ta kondenatua ez dira ondo bereizten ez munduan ez gizon bakoitzean:


" Chacun de nous, dit l'abbé Menoutour a l'abbé Donissan, chacun de nous est tour a tour, de quelque maniere, un criminel ou un saint, tantot porté vers le bien non par un judicieuse approximation de ses avantages, mais clairement et singuliere-ment par un élan de tout l'être, une effusion d'amour qui fait de la souffrance et du renoncement l'objet meme du désir tantot tourmenté du gout de cendre le vertige de l'animalité, son incompréhensible nostalgie " (L'imposture, 195 or.)


Infernurako bi bide daude: bata da, gaitza ona baiño geiago maitatuz, damaigun atsegiñagatik. Bide motzena. Bestea da, norbera maitatuz, gaitzari eta onari ajolik eman gabe. Bide luzeena, itzulpenik gabekoa. (Le Chemin de la Croix-des-Ames, 37 or.)

"Pekatua izate-falta da", eta "L'enfer c'est de ne plus aimer".

Nire ideia auek espresiorik gabeko eskema baten itzak dira. Eta ba-dakit, ez liraindu baizik diseckatu bezela egiten dutela bizitza orren sakona, nortasuna ta lillura.

L a s a'tar Mikel





ELKARRIZKETA

ZEINTZUK DIRA EUSKAL ITZAK

Gaur egunean euskereagaz daukagun zeregiñik lenengoena eriotzara daruan gatzetik ataratea da, bera indartu ta zabalduetea.

Beste ardura andiko arazo bi be ba-daukaguz: izkuntzaren batasuna ta garbi-zale ta errez-zalien auzia. Baiña auzi bi oneik aurretiaz erabagitea ez da derriorrekoan. Lenengo dogun arloari ekiteko.

Orain lez, iru lau modutara, eta loia-go edo garbiago, itz egin geinke eta, era berean, daukan baiño indar geiago euskereari emon.

Baiña, nire ustez au olan bada be, ez dago ondo lau katu baiño geiago ez garanok, iru lau modutara berba egin, eta askotan alkarri ezin ulertuta ibiltea. Ortik, euskeréarentzat, kaltea baiño ezin leikeka etorri agirian idago. Beraz, auzi oni arpegia emon bear deusagu, gogo onez aztertu ta erabagia emoten alegindu.

Nire gaurko idazlan onetan, 1958'ko abenduko Euskaltzaindiak Bilbo'n egindako Batzarrean Mitxelena Jaunak erabilli eban gaiaz jardun-go naz, azaletik bada be.

Bere eritziz, itz bat euskal itza dala edo ez ikusteko itz orreik izkuntzan daukan indarrari begiratu bear jako, nai ta beste batzun eri-

tzian (ta onetariko bat Azkue) etorkun edo etimologia konturik erabagitekoa izan:

Onako kontuan jakitun diranak difinoenez ez dago izkuntza bakar bat be zearo garbia, bat bera be ez beste izkuntzetatik itz geiago edo gixiago artu ez dabenik. Euskerea be ez; euskereak be antxiña-antxiñatik artu izan ei ditu itzak beste izkuntzetatik, da guk euskaldun jatortzat daukaguzan makinatxo bat itzek beste izkuntzetan ei dauke euren jatorria.

Ori ola bada, zorakeria be ba-da kanpo-tar itz guztiak euskeratik jaurti gura izatea; lendik be alderdi onetatik txiro daukagun izkuntza bearreko dituan jantzi barik laga geinke-ta.

Orratio, onaiño aitatu doguzan errez-zalien eritzi orri aurkako zerbait ipiñi leikiola ta nago.

Batzun ustez, arrotz ...kin usain txi-riarik badauka euskal itz batek, geu izan gara beti beste izkuntzetatik artu izan doguna. Zuzena ete da eritzi au? Ez dakigu ba! Baiña beste erara esan nai dabenak be, besteak euskeratik artu dabela esango leukenak be, ainbat arrazoin daukela uste dot.

Lenago euskeraren mugak askotaz zabala go baziran, zergatik beraz, bestiek euskeratik artu ez, euskeratik edo antxiña euskeraren senide izan zienteken batetik.

Mitxelena Jaunaren eritiziz, "santu", "bedeinkatu", "inpernu", "zeru" ta olakoak euskaldun itzak dira, besterik ez egoela erriak sortu eta euskeram sendo erroturik dagozelako. Ostera "deun", "donoki", "onetsi", "gaiztoki" ta antzekoak ez, eurak esan nai daben euskal itzak lenagotik egoezala asmatutakoak diralako. Mitxelena Jaunaren eritzi on aurka ni neuk ez daukat errazoirik. Beraz, besteren batek azpiratzen ez baditu nik ontzat emoten dodaz.

Auzi onetan beste batsuk oraindik aurreago doaz, euren ustez erriak darabiltzan itz guztiak ontzat emon bear geunkez. Ni neu bestela nago. Erriak darabiltzala-ta beste barik ezin geinkez ontzat emon. Ez dauka indar bardia, ni-re ustez, alde batetik "zerua", "bedeinkatu", ta antzekoak ta bestetik "kaballua", "Azula", ta abar..

Lenegoak, asmo ta konzepto barriarira-
ren esan naia agertzeko lendik euskerak itzik ez
eukala-ta, asmautakoak dira. Bigarrenak, barriz,
euskerazko itz jatorral alboan itxi ta bat be.pre-
mifa barik, zabarkeriz, gure izkuntzan sartu do-
guzanak.

Onetarikoak dira euskeran sartu ditan
itz asko. Belaundi edo generazio bakoitzak ezin
zenbatu ala itz mordoillo euskeratzen ditu.

Ni gaztea nintzanean, orain ogei ta
bost urte inguru, "avaro" itza ez genduan Ondarru'n
euskerazko jardunean erabilten, ia zer esan gura
eban be ez genkian-eta. Gerora ostera, iru-lau ur-
te kanpoan egon eta erriratu ginanean, gazte guz-
tiak "zeken" itzaren orde z erabilten. Orain, adi-
ñen aurrera doazanak kenduta, "avaru" gora ta "a-
varu" bera besterik ez dakie esaten.

Askotan itz bat, batzutan euskeraz da,
beste batzutan erderaz erabilten dogu. Bardin ja-
ku "alde" edo "fabore" esan, bardin "askatu" eta
"solta", "amaitu" edo "akaba"; "eztarria" edo
"gargantia", "iruntsi" edo "tragau", "egala" edo
"eskiñia", "aurreratu" edo "adelanta" eta eundaka
olako. Geienetan gazte ta umeak erderazkoaren al-
de jausten dira.

Beste batzutan zarrak erabilten dituen
euskal itz asko, gu gazteago garanok, ulertu egi-
ten doguzan arren, ez doguz erabilten, ta gazteak
eta umeak ulertu be ez. Oraindik oraintsu Ondarrun
umeentzat egindako gogo-jardunetan jazorikoa nire
amaika urteko alabeak esan eustanez: sermolariak
zutik jartzeko agindu ta umeak ulertu ez eta jaza-
rrita geldirik, ta abadeak igarri "zutik" itza ez
ebela ulertzen eta erderaz "de pie" agindu bear
umeak zutunik nai bazituan.

Ara emen beste jazoera bat erriaren aot-
tan, euskerea zenbat galtzen dan erakusgarri: ba-
genbiltzan lagun batzuk jardunean, batak au ta
besteak a. Ez dakit jardun gaia zer zan. Alako ba-
ten "atsua" itza esan neban. Nire ondoko lagunak
(ogetamar urte ingurukoa) ez ekian itz onek zer
esan nai eban. Ta arrituta nintzala ikusita, be-
re adineko inork ezetz jakin Ondarru'n itz arek
esan nai ebanik erantzun eustan. Asi giñan ba i-
taunka ari ta oneri, baiña "atsua" itzakin aoa za-
balik gelditzen ziran gazte guztiak. Inok ez ekian

zer esan gura dauan.

Gurea baiño zabarkeri aundiagorik ezin leiteke zabarkeri aundiagerik izkuntza kontuan egon. Gaztelania'n emengo amarretik bat jazoko baltz, zelako garrasiak egingo leukeezan izkuntza orretako jendeak. Erdaldun batek "akaba" eta "garganta" ordez "amaitu" eta "eztarria" erabiliko balitu, zorotzat joko leukee. Nork esan leike, olgetan ez bada, "se ha amaitu la misa" eta "me duele la eztarri"? Euskerazko jarduna ostera, dana olakoxea da.

Ala be, lotsagarrikeri oneri ondo deritxoe batzuk, geure izkuntzaren gaitasun bat dala-ta.

Ez dago emen gaitasunik. Emen zer dagon ondo dakigu: lenen, erdal itza ezagun jakulako, ez jaku arrotz egiten euskerazko itzen artean premia barik sartuta be. Bigarren, emen ez daukagu euskal ikastolarik ondo itz egiten erakusteko, eta ezta be legea bete eragiteko eskubidedun izkuntza zaintzaille bazkunik.

Batzun ustez, erri-euskera auxe erabilli bear genduke danok, ederragorik ezin leikea egon eta. Egia, euskerak ederrik ezer badauka erriari zor jako, berak sortu, berak moldatu, ta berak iraun eragin deutsalako. Baiña orain erriak ez dau izkuntarik obetuten, edertuten, alperrik galdu baiño. Ez dakit nik itsasoko mariak lüz gora ta berakorik izaten daben, baiña ala bada, euskereak, beintzat, orain, beruzko aldia dau. Erderrazko itzak premia barik erabiltea bakarrik ez da euskeraren okerra. Bear bada berau izango da gatxik arifiena.

Orain lengo itz asko ez doguz erabilten, aditzeko flesiño asko galdu egin dira, euskeraren lege asko aldrebestu. Ondarru'n nire gurasoen euskeratik nire umeen euskerara alde ederra dago. Zarrak erabilten dituen aditzeko zenbait flesiño ez doguz erabilten! Ara gazteen aldrebeskeri batzuk: "Guazen" esateko "guazen gaitin"; "zein eta dan" esateko, "zein dalakoan"; gu, geu, geuk, guk esateko beti "guk" itza erabilten dabe.

Ez da Ondarrutarron gatxa bakarrik, danekoa baiño. Gure auzo erri Berriatu'ko gazteeri "naitu" entzun izan deutset, "gaitu"-ren antzekoa

"nau" esan bear dabenean. Lekeitio'n barriaz, "eustan" esan bearrean "naben" erabilten dabe. "Ementxe egongo dala esan naben", esan eustan beifola ango lagun batek beste bategaitik itaundu neutsanean.

Onek olan badira, eta olan dirana inok ezin ukatu leike, ez dot uste gaurko erriko euskera ontzat emon geinkenik edonondik begiratuta be.

Beraz, zer egin bear dogu euskeraren itz eskasia, berba urritasun, problema erabagiteko?

Gure artean arerio gogorak daukaz neologismoak. Neuk be len euskal itza zaarik badago barria asmatuteari gaizki deritxot. Baiña len euskerak ez badauka bear dan itz zarririk neologismoak sortuteari ondo baiño obeto. Ez gara euskaldunak bakarrik olako berba barriak asmau doguzanak. Geitxeago edo gutxiago, beste errietan be neologismoak asmau ditue. Eta ez ori bakarrik; baita baseritarak zugatzak tertatzen dituen lez izkuntzari zumo barriak sartu izan, erderazko itzez esateko, erremedio artifizialak egin be. Ekarri daigun gogora Turkia'ren izkuntzazko jokera. Turkerak ez zan gauza jakintza gaietarako. Gaiñera, lurralde bateko turkiarrak ia ez eutseen ulertzen beste aldekoeri. Ta berpizkunde aziak aberriko gorabera guztiak zuzpeltu ebazanean baseritarrena oifarriztat artuta izkera indartzen gogoz asi ziran. Ara arazo onetzaz 1943'gn. urrillaren amarreko "Mundo" erdel-aldizkariaren itzak: "Kemal Blaturk decidió abandonar el osmalí y tomar como base de enseñanza el turco hablado popular. Pero como a ese idioma también habían comenzado a llegar infiltraciones extranjeras y además se había empobrecido por el poco uso, se le añadieron las palabras necesarias para sustituir las ejenas o para llenar huecos o deficiencias. Esto se hizo unas veces inventando nuevas palabras por derivación de raíces de otras palabras turcas antiguas y buscando en viejos manuscritos vocablos turcos desconocidos. Otras veces se intercalaron modismos regionales de dialectos turcos hablados en comarcas lejanas. No faltó el caso de que al no encontrar palabras turcas que expresasen ideas modernas tomasen del francés y dijeran "ekselans" (excelencia), "Fuar" (feria), etc.

Egia esateko, erdal-aldizkariaren itz orreetan ikusten denez turkiarrak arrotz itzak be eureganatu ditue, baiña bertan geien nabermen-tzen dana izkuntzan "laboratorio" lana egin ebela da. Niri neuri ezin ta obeago iruditzen jat turkia-rren jokera ori. Errial olan edo alan itz egin ar-ren ondamendira badoa izkuntza, berari ondoen le-torkion bidea artu ta nai-ta naiezko legean erri-ari goitikan emon. Gaur turkera sendotua dago ta gudaren batek-edo erri ori sakabanatzen ez badau, gaizkatu dabela esan leiteke.

Guk be turkiarren bideari jarraitu gein-kio. Bear diran itz barriak sartzeko ez gara nagi izan bear. Jakifia, bear doguzan itz guztiak asmau bearrik ez daukagu. Itz internazionalak, erri guz-tiak erabilten itzak, geuk bere erabilli geinkez. Nik neuk beintzat, penizilina ta olako itzak ondo lasai erabilliko neukez, erabilli bear banitu. Bai-ña besteak, erri bakoitzaren itzak ez. Bestela guk ez daukaguzan eta gaztelaniak ta prantzesak dauke-zan itz guztiak euskal-itzak izan leitekez.

Beñiola, nire illoba dan neskatilla ba-tek "atolondratua" zala beste bategaitik esan eus-tan. Orduan euskeraz sekula entzun ez neban berba a entzun nebanean, "Jesus!" esanaz, zer esan nai eban galdetu neutsan, lendik be banekian arren; ta bere erantzuna auxe izan zan: "despistadia".

Itz mordofillo orreek nire ama zaarraren-tzat (illobak baiño euskeraz askozaz obeto dakia-narentzat) ez dira euskal-itzak, zer esan nai da-ben be ez daki-ta. Zer diñoe onetzaz mordofilloza-leak?

Gaurko euskaldun gazteak eskolatuago di-ralako, euren kultura erderatik artu dabelako, le-nago erriak erabilten ez zituan itz askoren premi-ña izaten dau bere oldozpena, bere pentsamentua a-zaltzeko, ta jakiña, erderazko itzak erabilten di-tu; bear bada, euskaraz sekula entzun ez diranak. Beraz, (itaunka nator barriro) euskal itzak dira erdal-itz guzti orreek? Orduan euskal-itzak izan leitekez euskeraz ez daikaguzan erdal-itz guztiak be. Erdal dikzionariua, erdal iztegia iragi edozei orritan eta eritxira artu itz bat; bear bada erde-raz be ifioiz entzun ez dogna ta axe be; orduan, euskal-itza izango da guretariko batek euskeraz diardugula bera erabilli bearra izaten badau. Ja-

kifia, itz orrek bat be premifia barik euskeran sartu diran beste areak baiño arrazoi geiago dauka, baiña ala ta guztiz bere ez degu ontzat emongo.

Nire ustez, "despiatadia", "atolondradia" ta antzekoak baiño euskal-itzen sustraiz ta legez egindako neologismuak euskerago dira.

Ori bai, neologismuak ez dira edozelan sortu bear. Lenago asmau diran askori akats gaitan-tak billatu izan deutseez. Beraz, len au ardura andiagaz egin bear da. Neologismu bat egokia dan edo ez Euskaltzaindiak erabagi bear dau, itz orren aida ta aurka agertu leitekezan arrazoiak aztertu ta gero. Ta gaitientzekuori aren erabakia betetea baiño ez dagokigu.

Itz barriak erriak ez dituala ulertuten? Ez begi ifork uste izan erriak ez deuskula ardurarik emoten. Zertarako nai dogu, ba, euskerea, liburuetan gordeta eukiteko edo aingeruak itz egin daien? Ez, euskera ederra ta edozertarako gauza da. na egin nai badogu, be, erriarentzako egin nai dogu. Erri barik ez dago euskerarik. Baiña auzi onetan ezin geinke erriari jarraitu; erriagaz batera ibilli, bere aurrean jarri ta bideak zabaldu baiño tiraka gure atzetik ekarri baiño.

Euskerarik ez da biztuko gauza guztietan orain arte lez jarraitzen badogu. Euskeraren anak bide barriak artu daiguzala eskatzen dau. (Ez diflot bide barriak gramatika ta itzen kontua buruan dardala).

Munduko izkuntzarik ez da indartu ikastoletan-da erakutsi barik. Auxe da bide barri ederrena euskera gaizkatuteko. Umeeri, legearen indarrez, ikastoletan erakusten asten ez garan artean gure izkuntza amaitzen joango da. Ostera, bein euskera ikastoletan irakasten asi ezkerok, umeak errez ikasiko ditue itz barrien esan nala, errez ulertuko ditue neologismuak.

Askok, errazoi andirik agertu barik, garbizaleei ezarri deutse euskeraz irakurteko euskaldunen zaletasunik eza. Len geiago irakurten zala? Ez dakigu. Orain eun urte ez egoan euskal-aldizkarririk, ezta izparringirik be. Ez dakigu ziur, baiña liburuak be orain baiño gitxiago argitaratuten zirala jokatu geunke, eleiz-liburuak kendu ezkerok. Alan be orain baiño geiago irakurten zala euskeraz kontu egin daigun. Ta zer? Orain eun urte

Gipuzkoa'ko geienak ta Bizkai'ko askok be erderarik ez ekien; beraz irakurten apurra nai-ta-nai-ez euskeraz izan bear.

Gaur osterera euskaldunik geienak erdera darabille euren jardunean eta euskera berba egiten dabenak be erderaz bakarrik eskolan ikasten dabe eta ez dauke gogorik eta erreztasunik gure izkuntzan irakurteko.

Askotan Bidaso andiko euskal-idazleak ipiñi deuskuez eredu lez. areek ez ei dira emengoak lez gerbizale. Areek bildur barik sartzen ei ditue erdal itzak euren idazkietan. Eta zer? Orrekin ez deuskue ezer esaten. Ango euskaltzaleen jokera ori gora-bera an be galtzen doa euskera, an be emen baiño etorkizun obeagoa ez dauka gure izkuntza zaarrak.

Amaitzeko, laburki azalduko dodaz, euskal-itzak zer diran, edo beintzat zeintzuk erabili bear geunkezan, neure ustez, eta zeintzuk ez.

Mitxelena jaunak aitatu zituan "zeru", "bedeinkatu" ta antzekoak erabili geinkez.

"Kaballua", "azula", "progresua" ta euskeraz garbi esan geinkezanak iñoz be ez.

Gauza ta asmo barrientzat itz barriak sortu bear doguz, erri guztiak darabiltzen itz interhazionalak orretarako ez diranean.

Jakifia, itz internazionalak erabili geinkez, baiña orduan be euskal-itz errez ta egokirik asmau al danean asmau leitekez. Gauza ta asmo barrientzat, itz internazionalak orretarako naiko ez diranean eta neologismurik be ez badaukagu, erdel-itza erabili geinke.

Itz zaarrak, nai ta erriak aaztuta euki, atara egin bear dira, biztu egin bear doguz.

"K a m i ñ a z p i"

ARANTZAZU'TIK: YAKIN'larien billera

Bideak ikasiak baizituzten geienak, aurtan ere emen bildu zitzaigun amabiko sail polita. Agorraren amabitik amalaurako epea zen gure kezkak agertzeko ta asmo berrien erruntzeko aukeratua. Ta beraz, epe joria ta abe atsa izan dugu, edozein aldetatik begiratu. Egia esan, billera egunak autatzeak ba-ditu berekin zenbait korapillo ta koska suerte. Ez dago deneri atsegin ematerik, batzuek dagonillean eta besteek agorrean nai izaki. Alabaiña, geienen iritziari edo bearrari men egifitez, esan ditugun egun oriek begiz jo genituen erosoentzat. Ala etorri ziren gizonki, itz eman zitugutenak. Amabi gazte sasoiatsu ta asmo jario, gure artean A. Onaindia genuela. Tamalez beranduegi asi giñan deiak bialtzen, lanaren geiegiak eskuak lotzen zizkigun-da. Asti-eza bitzrteko ezin etorri izan zuten, esate baterako, Loiola'ko Jesulagunak. Ezpai gabe ordea, gureen ondoan zenituzten zuek ere, adiskide gogoratuok, zuen biotz suarrak.

Asieran bildur giñan ez ote zitzaizkigun Deric'ko apaizgaiak azalduko. Ez baigenuen prakadunik begiztatzen amabiaren eguerdian. (Bazen etor etziteken beste prakadunik...) Trenak errudun etzuten garaiz etortzerik izan amairuan goizetik arte. Orduan, Onaindia ta biak atotsi aal izan genituen pozaren pozez. Eta bein bilduak billera zabaldu genuen.

Obeto esan bear dut, billera asia zegoe-la aitortu bearko. Amabi arratsaldean asi giñan, izan ere, baiña oriek falta zirenez gaiinteresegebeenak -YAKIN'lariantzako alegia- erabili genituen. Zer zein egunetan izan zen, ordea, geroko uzten dut, lekuan lekukoa ipiñiaz guztiak txukun eraman aal ditzagun.

Programan esaten zen bezela, igazkoan bille a aueri jokabide berri bat ezarri bear geniela eskatu omen zen. Erabakiak burutzeko bada, aurtan zerbait berri eratu nai izan dugu. Jakifia: asiera lan edo saio auk ez dire jator okituak izan oi. Eta bear bada gure billera onek ere izan zezaken andik edo emendik maketsen bat, akatsik. Dena dela, egifiaz eta oartuaz zuzentzen dire. Leen-

dik aurten frantziskotarrok ukan genuen beste billera bat, eta andik xurgatuz eta eman diogu gure onai bizia ta gorputza. Andiko lan batzuk izan ditugu beraz, bide urratzaille, aietaz baliatu gera-la.

Arantzazu'n orain lautsu urte Euskaltzaindiak eraturik egin zen biltzarrean aitonen batek negarrari ekin ai zion -entzun dudanez- norbait erderaz ari zelako euskera gai artarako trebe etzen ustea kari. Gure artean etzen negar zotiñetan urtu zenik -ez noski euskerarekiko biotz-berarik etzelako- zio bera izan arren. Orok nai dugu, bai, billera au euskera utsean izan dedilla, baiña euskerazko baiña tajuzko izateak geiago eragiten gaitu. Orra bada, besterik eziñean, ez dugula aurten euskera utsean egokitu. Aitzitik, idaroki bezela, batzuk erderaz entzun genituen, leen aitatu dugun batzar ortarako egiñak izanik, andik artuak baiziren.

Jomuga au aurkeztu ziguten aurtengo gure billera onetarako programa atera zutenek:

- 1.- Eskuarrean ditugun lanak entzun eta eztabaidakatu, ta
- 2.- Datozen urteetarako billera auen erakuntza zeatzki erabaki.

Nik uste dut jomuga au bete dela, eta bete ezeze gainez eragin ere bai, agitz. Urrenez urren ikusiko ditugu betekizun eta asmoak, asmo usteletan geldituko ez diren itzaropidean, noski.

Billera gaiak;

Ez dut uste mintzaldiak izan genituen era berean ezartzea garrantzi apartekoa dezake-nik. Ala ta guztiz aal dudana egingo dut zuzen eta zeatz -laburpenari begira- jakingarrienak ez aazteko.

Billera egunetako leenengoan, arratsean, A. Omaetxebarria'ri entzun genion: "Euskera ikasi bearra". Zabala eta sakon -eta luze- aritu zitzailgun "bear" onen zergatikoak eta nundikoak tolesgetzen. Ba-zen an iru arrazoi mueta gutxienez. Eta au, eskolastika tankera bere lanetik aienatu nai omen zuela ta guzti, alajaiñetan. Bestalde, Euskal-erri'tik irtenaz, Congo'tik eta Txinatik zear eramane gintuan Mongolia'n utzi arte,

saltokaldirik larrienean. Ura irudimeanren presaka ibilfi bearra! Baiña asp pozik entzun genion -ez berberari, bere orde zegoen magnetofonoari baizik, Lafitte'ri bezelaxe-oso pozik, noiztenka parre-argara bat aurtikiz-eta. Baiña billera artan arnasartu genuen etxe giroan jarraiki, oraindik ere txantxetan jarduteko prest baigaude gu...

Ondoren ibillalditxo bat, giro bustia zen arren. Eta oraindik eldu etzirenek batere gabe kausitu etzitezen oneratzean, programan gaztiaturiko diaposotiba-zinema ikusi genuen ondoren. Pitxiena auxe gertatuko zitzaigun billera onetan; pitxiena ta jatorrena, garrantzitsuena ta onena berdin ez direla... Ta bukatzean piztu zen berriketa ixil-eraziz Ariatza'ko urretxindorraren lobak A. Garaialde'rena irakurri zigun, euskeraz: "Euskera erri azietan". Saio au A. Astigarraga'renaren ordez irakurri ziguten, iragarria bidegatu zela medio. A. Garaialde Arrasate edo Mondrageen dabillela, an ikusi ta cartuak jauki zizkigun. Ernagarria lana, erri azi orietan ari baita euskeraren erio-bizi gudua amorru gorienean aspaldi onetan.

Amairu ura...

Amairu goizeko lenengo eginkizuna Lafitte'ren itzak edatea. Bai, moteillak, edatea, ta moskorrak ardo goxoa baiña gogotiago gainera. Eskuara goxo-goxoan bere "Herria"-ren berri eman zigun. Begi-belarri, belarri uts geunden oro, itz bakar bat, liparrik ere gal etzekigun. Alkar-izketarik xamurrenean erradio ta euskal liburuen propagandari zor zaien eta diegun arretari buruz ere mintza giñan. Tamalez, oraindiokoan ez da erreza ezer erabakitzerik. Baiña egingo al da zerbait.

Zuetariko zenbaitek erantzun duzute aspaldi batean igorri zitzaizuen "Iritzi-billa" orri zieri? Ba, oietaz mintza zitzaigun gero Kepa Enbeita lankaina. Baiña onetzaz berak esaten dizue bearrekoak.

Ez giñan asarre Yakinlariok. A. Onaindia gurekin genuen, goianago esan dudana bezela. Milla ta milla esker ematen dizkiot denon izenean, biotz biotzetik, biotzaren biotzenetik. Geientsuenok orduantxe ikusten genuen, ausaz, leenengo aldiz. Be-

rari eskatutako lana -"Apaiza ta euskera"- bizkai-
era ederrean eman zigun, berak oi duen lez.

Billera gaiak:

"Gogapena gutxi batzuen gaitz berezi bat
duzu, eta gizartean edatuko halitz tupustez erakar-
riko luke gizadi osoaren azkena", idatzi zuen A-
natole France'k. Gu, berriz, gaitz orri urbiltzea
onuragarriago zaigulakoan gaude. Programak zion:
"Gure billera onek frutu umotuak eman ditzan, ar-
ren eskatzen dizuegu: ausnar itzazue emen aurkez-
ten ditugun gai auek..." Aurten goiz esnatu gera,
eta oraintxetik nai izan ditugu datorren billera-
rako gaiak izendatu. Geiena egiña dugu, ziur jakin
arte argitara ez baditeke ere. Ondo ausnartuak e-
gongo al dire, benaz.

Euskal itzak:

Berriz ori?, esango du norbaitek. Ta zer
nai duzu bada, itzik gabe idaztea ala? Igaz bero-
txo ibilli zirelakoan nago. Aurten, -eskarmentu
gabeko gazteak ba-dijoaz eskarmentu pixka bat lor-
tzen, nunbait- etzen inor ain gai sasia eskuak
sartzen oldartu. Denok genekien alperrikakoa li-
tzekela. Orregatik, bide-nabar ikututxoren bat e-
gin bazitzaion ere, ezer gutxi. Eta ala obeto.
"Iritzi-billa"-n nor den batek onetan idazleak be-
rak bear lukela maixu erantzun zigun, eta ni ere
ortantxe nago.

Utz ditzagun auzi-mauzi kailluskak, eta
goazen mamira: to be or not to be'ren artean lee-
nengoa autatu ta eutsi, alegia. Izan, beintzat!

YAKINTXO kali?

Gizonak zerbait egiten duenean zerbaite-
gatik egin oi du. Arabera, "Yakintxo" sortu zuen
billarak beste ainbeste egingo zuen, antza. Yakin-
txo gaixoari, alabaiña, zergatik edo zertarako i-
zanak alde egin dio gaurko gaur negargarri onetan.
Yakintxo ez da bizi. Zugaitzak neguan bezela lo
artu zuen, eta orain ezin dugu iratzarri. Alperrik
atxurtzen dizkiogu zuztar inguruak; alperrik dei
egiten. Bein asi ezker ez litzake on berrizleen-
gora itzultzea. Zergatik, ba, geuk Yakintxo kali,

akabatu? Laguntzen ez badiguzute, idazten ez badiguzute, bereak egin du!

Billeran onetzaz ere mintzatu giñan. Inork ez genuen berriz izkutatu dedifikai nai. Baiña ala bearko du gertatu, orain artean bezela, inork laguntzarik bialtzen ez badigu. Esan liteke, izan ere, Orixe aundia dugula laguntzaille ia bakarra. Berari ere eskerrik sutsuenak eta egiatienak lerro zimel oen bitartez. Baiña besteok, nun zaituztegu? Nun etzin zatzaizkigute? Eztuzute entzuten Yakintxo aurraren azken arnas estua? Laguntza urribizian gera: arren, idatzi, lagundu.

Billerak mardultzen:

Nire uste maketsean, billera onetatik irten duen garrantzitsuena, eta ondorioetan aberatsena, Intxausti'k maira bota zituen enbidoetatik sortu zen. Joseba'k enbido franko bota bai. Baiña... Zer baiña, gero? Baita guk jaso ere. Lendabizikoz igazko asmo bati betekizun eman hairik agertu zitzaigun. Alegia, billerak beste bide batzuetatik abiatzen saiatu bear genukela. Ta onetarako erreglamendu bat antolatzea ez legokela ain gaizki ere, noski. Leenengo egunean irakurri egin zigun bere aldetik gertua zeukeana, eta batiere kritikatu gabe jaiki giñan. Urrenengo egunean beste ainbeste, eta mai gainean utzi zituen bere papelak. Amairu arratsaldean ukan genuen azkenekoz erreglamenduari zegokion billera. Bakoitzak bere iritzia ekuruki azaldu ostean artikulo batzuk onetsiak eta beste batzuk berriz ikusteko utzi genituen. Ta dena burutua utzi genuen amalau goizean. Erreglamendu edo araudi onetatik zenbait artikulu. suerte ementxe aitatu nai nituzke.

Adibidez, Yakin'ek lortzen duen laguntza adifiona ez den ezkererabaki au artu zen:

"Yakin'ek bere batzarkideeri laguntza au eskatzen die:

- a) Apaizak: beren bizi-toki inguruko euskal berak beintzat zuzendaritzara bialtzea: txapelketa, euskal itzaldi, antzerki saio, tab.
- b) Apaizgaitegi ta erlijioso etxeak laguntza au eskeintzen dute orain asten dugun urterako ((1960-61):

Beneditarrak.....	5	lan
Laterandarrak.....	3	"
Karmeldarrak.....	6	"
Pasiotarrak.....	6	"
Prantziskotarrak.....	6	"
Sakramentinoak.....	6	"

Guzira: 32 lan

Lan auek abenduaren, epaillaren, eta dagonillaren 25'rako bialduko dire Arantzazu'ra. Ale bakoitzeko biña (sei aginduak) edo bana lan bialiko dituzte.

Erabaki au urtero alda diteke"

Beste erabaki eder bat zazpigarrena da: "Apaiz, apaizgai ta erlijiosoak ezezik arritar batzuek ere batzarkide izan ditezke". (Erritarre-ri eskari bat egingo nieke nik: ez ditezke ~~batzarkide~~ ~~izan~~ ~~ditezke~~ ~~ta~~ ~~erlijiosoak~~ ~~ezezik~~ ~~arritar~~ ~~batzuek~~ ~~ere~~ ~~batzarkide~~ ~~izan~~ ~~ditezke~~).

Eta amargarrena beste denak baiño area-
go:

10'gn. er.: Billera bakoitzeko gaia aurreko batzarrean izendatuko da". Ikusten zaitut erdei-ñu irri muzin batek aurpegia zimurtzen dizula, "zer dek ba ori"? esaten, zere artean. Nik, alare, oni deritza~~z~~ aurtan betegarriena. Ikus deza-
gun.

Bezperatik esan zen bakoitzak pentsa ze-
zala zer nolakoak izan zitezken urrengo billerara-
ko gaiak. Ona emen zurkeztu zirenak: Gorputz Mis-
tikoa, bere alde guztietatik elduaz: Eliza, gi-
zartea ta gizona, teologiaren, Eskritura Santuaren
eta Elizaren irakaspentak lagun direla. Europa ber-
ria ta Europa-zaleen asmoak, Filosofia-kondaira,
Ekumenismua, Euskal-jakintza, Filosofi-saioak,
Eliza. Au ikusirik ezin kexu egon gaitezke. Ke-
menak eta ausardia bederen odola bezain geure di-
tugula nabariaz. Zein baiño zein jakingarriago
dire guztiak, batzuk apaizkeri edo kandela-lurruna
dariotela diruditen arren. Ez, orixe! Eta ez du
orrek arritzekorik, erritzz eta konbentuetako, ez
baigera bi muturretan aurkitzen gure pentsaeran,
alkarrengatik agitz urbil baiño. Denok ditugu
kezka ta min berdiñak. Erabili liteke Gorputz-
Mistikoa gaia txairu ta errex eta interesgarri.
Eta baita Europa'tzazkoa sermoi bat baiño lorra-
goa...

Biziki mintzatu zen jendea. Ta Filosofi-kondaira gelditu zen garaille. Auxe, bada, nai genuke tajutu datorren billerarako: antxiñako ta erdi-aroko filosofia euskeraz eman. Onetarako erdibitu egin genuen filosofiaren kondaira, eta leenengo erdia beste amabi zatitan partitu. Direlako atal auek, berriz, etxe edo notiñeri banatu dizki-egu, datorren urtean lanak oro bukatuak izango dituzten itxaropidean.

Orainokoan ez dezakegu banaketa au argitara, arras onestekea dagoenez. Baiña esan liteke egiña izango dela, itza eman dugunez. Itz emana ez betetzea Jainkoari lepoa moztea lain dela entzun dut noizpait. Tira, ba...

"Lanen luzeera 20'tik 50'ra orrialderakoa izan liteke. Eta onela moduz eskema nagusiena:

- 1) Bizitza: idazlearena edo eskolarena: gizarte-
giro, t. a.
- 2) Idazkiak.
- 3) Filosofia: aal dela lan au filosofi zatiei
dagokienez atalduko da: Logika,
Kritika, Metafisika, Teodizea tab.
Baiña onela egin diteken edo ez
bakoitzak ikusi bearko du".

Ez dezagun aaz erabakiekin ari giñala, amaseigarrenean beste au dio-ta: Billera auetako lanak YAKIN'en Zuzendaritzaren eskuetan geldituko dire, derizkionerako balia dedin".

Eta ez dago esan bearrik, ez dela sutara jaurtitzeko izango...

Prakadunak agirian:

Zerbait esangarri duen nornaik du orain Yakin'eko atea irikia. Ia prakadunen laguntzarekin sakristi usai pixka bat garbitzen diogun. Bat agertu da, Mikel Lasa. Ez dugu besterik nai: asko azaltzea. Atozte zuek ere, bildurrik gabe. Ez baigeregu, batzuk ala uste arren, eguna ausnarrean pasatzen dugun abere beltzak; salmu ausnartzen bizitza eio dugunak. Jaiki, mutillak!

Azurmendi'tar Jose
Arantzazu'koa

IRITZI BILLA

Lau urteko mutiko musu gorriak bere bapotasuna gustatu naiean, ispillura begiratu zuan. Baiña orrekin bakarrik konforme ez-ta, bere lagunnei ere galde egin zien. Bere ingurukoak nortzat zeukaten jakin nai zuan. Urduri zegoan eta ara bere urkoak ispilluaren iritzi berdiña eman.

JAKIN. Lau urte plazara atera zitzaigula; eta lau urte auetan amabi frutu mardul emanak ditu. Lagunak ere geroago ta ugariago urbildu zaizkio. Baiña etzekian bere adiskideak nola artzen zuten; begi onez edo estimaziorik gabe. Ori jakin naiean, urte bete oraintxe, enkueta txiki bat zabaldu zuela. Jendeak, adiskideak erantzun diote. Eta gaur irriparrez ikusi dugu. Pozik gajoa! Ez diote, ba, esan "pinpilinpauxa udaran baiño atsegiñago" zaiela? "Begi-ninia bezela" maite dutela? Nungo neskatzia ez zoratuko itz oiekin?

Ara emen galderak beren erantzunekin. YAKIN'zale ta adiskideok, zuek juzga bidezkoa dan egun auetako YAKIN'en poza.

Zabaldutako orriak: 400
Erantzun dutenak: 98 (24'5%)

Irakurtzen dutenak bakarrik erantzun al dute? Ondo artzen ez duten guziek ez al dute erantzun? Edo erantzun ez duten guziak ez al dute irakurtzen?

Egin genitzaken galderak, noski; baiña etzaigu zillegi orren pesimistak izatea. Ba-dakigu geuri zer gertatzen zaigun: alperkeria, nagia, birko utzi eta gero aaztu edo papera galdu...

Peña dugu guziak ez erantzutea, baiña pozik gera lautik batek erantsun dualako.

ATSEGIN AL ZAIZU "YAKIN"?

87 (88%) bai
8 (8%) ia bai

- 1 ez
- 2 ez dute erantzun

Esan dute

Oso atsegin, bere zai nozu beti. Aldi atsegintsua izan oi dot bera irakurtzen.

Pinpilinpauxa udaran baiño ere geiago. Begi-niniak bezela.

Asko ere. Oraifarte, gure erriko intelektualen artean ez da egon onelako asmorik.

Bai, oso atsegin. Beraren zai, juduak Mesias'i bezela, egoten nauzu beintzat.

IRAKURTZEN AL DUZU?

98 (100%) bai

Esan dute

Atsegin zait YAKIN eta atsegin ori irakurtzeak dakarkit.

Goitik bera, orriak astinduaz.

Begietako argia galtzeraiño: gau ordutan sarri-sarri.

Baita nere ikasle batzuei irakurri-azire.

Egia esateko zeatz ez det batere irakurri, asti gutxiegi izan detalako eta jakin-zale diranak eskuetatik kendu dizkidatelako: zabaltzetik onura datorkigulako.

Bai, gustora. Leen asieran ez nuan dana irakurtzen.

DENA IRAKURTZEN AL DUZU?

98 erantzunak

37 dana

34 geiena

19 erdizka

7 gutxi

1 erantzun gabe

Esan dute

Osorik gaiñetik erpifera.

Bai, baiña denpora asko biar izaten dot euskaldun berria naz-eta.

Azkeneko arkibideko azken letraraiño.

Dena eta idazki batzuk bi bider ere bai.
Azken zenbakiak zearo irakurri ditut.
Guzi-guzia ez. Arteka aspergarri zaizkit eta astunak zenbait gai. Baiña onek ez du esan nai maite ez ditudanik. Astia, denpora daukagu urri lanetik bizi bear dugunak.

ATALEN BAT BAKARRIK?

37 atal danak
50 danetatik
9 bat baiño geiago
2 batetik bakarrik

Esan dute

Bardin jat lenengoa zeñ azkenengo sailla.

Jakina, atal batzu atsegiñago zaizkit besteak baiño, neke gutxiagorekin irakurtzen diralako gai ariñak darabilzkizuten artikuluak.

Atal guziak irakurri ditut. Batzuk geldiro-geldiro, opa didaten euskera goxoa miazkatuz eta ausnartuz. Besteak, azkarxeago, ardiak belardi mikatzean belar biguin eta goxoaren billa antzo.

ZEIN ATAL GEIENIK IRAKURTZEN DUZUNA?

55 erantzunak.
26 elkar-izketa
13 kultura
6 filosofia
4 andik-emendik, ardura zaidana
2 itzaurrea
1 lenengotik asten naiz
1 gizarte arauzko lanak
1 irakurtzeko errezanak
1 euskeraren berri dakartenak

Galdera oni ez diote danak erantzun. Izan ere, dena letzen zutenak etzeukaten erantzun bearrik. Gaiñera, ogei ta sei oiek ez dute elkar-izketa bakarrik irakurtzen, aurreko erantzunean ikusi dugu bi bakarrik zirala atal bakarra letzen zutenak.

ZERGATIK EZ DUZU IRAKURTZEN?

33 erantzunak

- 12 (36%) gaiagatik
- 9 (27%) euskeragatik
- 5 (15%) betarik ezagatik
- 5 (15%) ez dute oztoporik
- 1 idazleen nortasun ezagatik
- 1 bai ta ez, ez ta bai

Erantzun gutxi. IXILDU DIRANAK EZ OTE DUTE OZTOPORIK?

Esan dute

Irakurtzen badet euskera ta gaiagatik irakurtzen det.

Euskera zaarrari eutsi bear diogu. Piska bat orraztu da, nere ustez, YAKIN'en berrizaletasuna.

Lenengo zenbakiak baiño azken zenbakiak euskera errezagoz datozkigu. Jarrai orrelaxe.

Lan egiten dunari utzi lan egiten, poliki-poliki orraztuko du bere euskera.

Euskera zenbait ataletan naastua ikusten dut; zenbat aldiz erdal-itz geiegi ekartzen dirala derizkiot. Gaiak, orain arte baiño ugariago bear lukete: esate baterako, euskal-leari, euskaldun idazleeri buruz zenbait lan gertutu. Erbestekoetaz zerbait egin da, baiña etxekoetaz oso gutxi.

Denpora gutxi eta alperkeri geiegi. Euskera eta gaiak etzaizkit gaizki iruditzen (gaiñerra ez naiz iflor ori erabakitzeko). Jakifia, gai batzuk besteak baiño atsegifagoak arkitzen ditut.

ZER GUSTATZEN ZAIZU GEIEN?

61 erantzunak

- 22 (34%) elkar-izketa
- 12 (19%) filosofi-gaiak, teologiarekin
- 15 (24%) kultura
- 10 (16%) egin-naia
- 2 (3%) kritika ta iskanbillak

Beste batzuei atsegifien zaie:

Azala bere irudiarekin

Aita Santuaren itza

Elkar-izketa ta Intxausti
Elkar-izketa ta beroa
Euskal-berriak
Gizarte-lanak
Euskal-kultura ta mugimendua adierazten du-
tenak eta euskera biziki darabiltenak

ZER GUTXIEN?

- 13 teologi-filosofi sailia
- 3 eztabaida gogor samarrak
- 2 euskera mordoilloz egindako lan batzuk
- 2 idazle batzuen itz zailak
- 2 inprentan ez egiteagatik sortzen dan i-
lluntasuna
- 2 ezer ez
- 1 frase luze uler-gaitzak
- 1 gai txepel eta euskera motela
- 1 lan luze ta sakonegiak
- 1 euskera zaila
- 1 eskolastiku artikulua batzuk
- 1 atsegin etzaizkidan gaiak
- 1 idazleen akatsak
- 1 soinu garratzeko elkar-izketak
- 1 erlijiozko lan geiegi
- 1 liburu-antzik ez izatea
- 1 sarri samar ageri diran makina akatsak
- 1 sarritxo ulertu-ezina
- 1 ulertu ezin dudan neologismua, batez ere
lan luzeetan agertzen danean
- 1 marrazki edo argazki batzuen falta
- 1 multikopistaren nekea
- 1 askotan erteten diran lan illunak
- 1 ez du inun txarrik

Gusto ugari benetan. Arrazoiak zuan nun-
bait "gustoeri buruz etzegoala ezer idatzita" o-
san zuanak. Orra erantzun duten guzien ideak.

ZER DIOZU TEKNIKA ITZEI BURUZ?

Erantzun ainbat aburu. 93 dira galdera
oni erantzun diotenak, denak izan dute zer esana.
Luze erantzun du jendeak. Barkatuko digute guzien
iritziak ez argitaratzea; bear ere errebista osoa
bear genuke ortarako-ta. Geienen iritziak biltzen
dituzten erantzunak jarriko ditugu.

Esan dute

"Euskerazkoak on lirake; izkuntza orotan erabiliak onartzea obe da".

"Gureak ez galdu, baiña bear danean (maiz samar) kanpokoak ontzat artu ta gureru; bestela euskera ilko zaigu."

"Erderatik artu, izkuntza GUZIAK bezela".

"Kezkatiegi ikusten zaituztedala itzak dirala-ta. Idazleak ez du besteren esamesai lotuegi ibilli bear. Idazleen doaria da itzak aukeratzeko antzea, eta orixe izan bear du beti begi-aurrean, trebeki ta aantzetzuki itzak aukeratu, diranak diralakoak, bere gogai ta bulkoak bear bezela jazteko egokiak balin badira. Ori bai, izkera itsusitu gabe eta illundu gabe. Akademiak au diñola? Esan dezala. Idazleok akademiari, geien geien, ortografi gaietan jarraitu bear diogu, bestelakoetan geu gera gere buru ta lumaen jabe. Iñungo elezaindik ez du izkerarik egin: idazleak izan dira mundu guztian izkeragilleak. Beraz ez geiegi kezkatu auzi orren inguruan. Idaz-senak bear du nagusi izan."

"Kanpotik jesana ahalik xuhurrena bedi ta ezinbestez."

"Gai oiek euskal itzakaz obeto ulertzen ditut, onde sortuak badira beintzat, Orixek sortzen dituan Iez."

"Niretzat bardin zaizkit euskerazkoak edo kanpokoak itzak erabiltea. Alemania'ko elertian egon oi ziran orrelako "purista" batzuk, eta nire ustez orrelako jokera bat sortzen da, ez zeozer barririk daukeen artean, itzak... itzak... ta itzak erabilten dituztenen artean baiño."

"Iakiña! Campion'ena: geuron baratza geuron landarez betetzen ahal dugula, saiatu ortan; ezin dugunean besterenetik artu".

"Teknika itz bereziak, unibersalak, kanpokoak ERE onartu."

"a) Euskerazkoak daudenean, oiek lenbi-zi; b) Erderazkoak, zabaldu ta euskaldunen artean sartuak, oiek urren; d) ez bata ez bestea ez denean... erdiko bidetik, egokiena edozein".

"Teknika ta kanpokoak artu bear dira nere ustez."

"Biak, sortu ta kanpokoak onartu. Itz ikas-saillak ez asmatu."

"Kanpokoak? Naiko kanpoko gauza dauka-
gu. Erriari erakutsi egin bear zaio. Esan leike:
irratia edo radioa, eskribitu edo idatzi, idazti
edo liburua eta abar. Nere senarra ta ni, "Ori-
xe"ren alde gagoz."

"Bietara, parentesis bitartean iminita
kanpoko itzak."

"Sortu bear dira. Kanpokoak onartu oso
neurritz. Mordollokeria at."

"Euskeraz sortzea ohea izango litzake,
baiña gauzak gaur dauden tokian ikusita, nunaitik
bideak URRATZEA iruditzen zait bearrezkoena. A-
paintze kontua geroxeago etorriko litzake."

"Euskeraz sortu."

"Teknika ta kultura itzak eztira izkun-
tza batenak, orokarrak baizik. Euskera eztugu se-
kula kultur izkuntza biurtuko, izkuntza landu
guztiak onartu duten iztegia guretzen ezpafugu.
Burutik egiñak gaude ziara baldin frantzesak, in-
glesak eta abar, izkuntza ofizial baten jabe iza-
nik ardietsi eztutena guk lortzeko ametsetan ari
ba'gera."

"Erdibidetik jo. Munduko beste erri
guztietan erabat darabilzkiten zenbait kultur-itx
euskeraz ere erabiltzea onesten det. Euskerak ez
du besr beste edozein izkerak baiño eskubide gu-
txiago."

"Beste izkerak egin oi dutena, guk ere:
euskal fonetikaz jantziatz, noski. Astakeria derit-
zat danak euskerara biurtu nai izatea."

"Eztakit zer esan. Euskeraz esango nuke,
baiña gauza delikaua da."

"Galdera oni erantzunaz, itzegin beza
nere ordeaz don Domingo Agirre Jaunak. Kresala-ren
itz-aurrean dion guzia, nere-nerea egiten det. Bes-
te alde, gogoan daukat Orixe jaunak bere =Urte gu-
ziko Meza-Bezperak= liburu ederrean "Bi itz"en
diona: "Mordilloegi ez egiteko, batzuk; garbie-
gi ez jarduteko beste hatzuk." Ez da errez asma-
tzen. Orixe jaunak berak YAKIN'en 10'gn. zenba-
kian, 71'gn. orri barrenean diona, don Domingo
Agirre'k Kresala'n esaten duanarekin ez du alde
aundirik, baiña, Aita Intxausti jaunak Orixe'ri
erantzuten diona ere, nai ta naiez gogoan izan
bear. Esan dedana: ez da errez asmatzen."

"Itz danekikoak (unibersalak) onartzea egokiena deritzait, euskerazkoak sortzeari utzi gabe; ortan Intxausti jaunakin nago."

"Beste izkuntzetan ibiltzen diren teknika itzak, guk ere, eskuaraz ibil ahal ditzazkegu, beldurrik gabe!"

"Gaur gaurkoz euskerak ez baditu itz egokirik daudenari eldu, denporakin etxekoa landuaz kanpokoak aienatu."

"Gorago esan dudanez, euskeraz sorturikoak atsegiñago zaizkit. Geienetan, errezago ere bai... ongi sortuak diranean. "Terminoloji" auzian, "ORIXE" ta Azkue zanaren iritzia ederrago zait oraingo euskaltzain (akademiku) batzuen aiaño."

"Euskeraz ditugunak beti erabilli; ezin bada euskeraren errotik artu, ezin bestean kanpokoak."

"Datozen moduan artzea egokien gaurkoz."

"Al dan bezin erreza bear dula izan, uste det, euskera. Baiña auxe zailla, erreza ta era berean garbia izatea."

"Euskeraz sortu al dana ta kanpokoak be ontzat artu. Zergaitik ez?"

- - - - -

Orra iritzi nagusienak. Ezin esan denak berdin pentsatzen duenik; baiña geienak iritzi berekoak ditugu. Bototara erabakitzerik balego, erdi bidea eskatzen dutenak lirake nagusi. Baiña ain zailla izan erdi bidea nun dagoen asmatzen. Aspaldiko esana "in medio consistit virtus", erdi bidea bide zuzena. Zailla, ordea, kalean erdi-erditik, ez eskubi ez ezker, erditik joatea; lendabizi erdi ori nun dagoen jakin bear baida. Begi-okerrak eta itsuak eta argi onekoak eta eroak... erditik joango dira, bai, baiña bakoitza bere erditik, bat ere ez erdi matematikutik.

Iritzirik onena, nik uste, beiñoia Aita agurgarri eta euskaltzale jator batek esan zidana: "idazle onak jaramon gutxi egiten die itzei; euskera ondo dakianarentzat ez dago garbikeri, ez mordoillokeririk, euskera baizik."

Euskera ez dakian bati, areago ikasten ari danari, barkatu bearko dizkiogu bai mor-

doillo, bai garbikeri batzuk. Biak akatsak, "keri" guziak gaiztoak dira-ta. Zigu baten bi puntak: nun exeri an amilduko. Artu dezagun, bada, erdi-bidea. Zein eta nun dagon? Ementxe: idatzi dezagun problema gabe, kultura eman naiean, eta kultura ori euskeraz... Ta orrela erdi-bidetik joango geran? Geroak esango; gaurkoz EGIN bearra dugu. Ala edo ola, EGIN.

PRESENTAZIOA ATSEGIN AL ZAIZU

88 erantzunak

71 bai	9 ez
2 ez geiegi	2 ohea naiago
1 bai ta ez	1 erdizka
1 gutxi	1 ez ain egokia ere

INPRENTARATZEAN ALDATU EGINGO DUGU?

83 erantzunak

44 bai	32 ez
7 berdin zait	

INPRIMATZEAN, TXIKIA EDO AUNDIA?

66 erantzunak

37 (56 %)	txikia
16 (24 %)	dagon bezela
7 (10 %)	aundiagoa
6 (9 %)	ez aundi ez txiki,erdikoa

Erantzun ez duten guziak dagon bezela nai badute, oiek txapeldun.

INPRIMATZEAN, ZEIN ERREBISTAREN ERARA?

16 Euzko Gogoa	6 Hechos y Dichos
8 Selecciones	4 Yakin
7 Egan	3 Proyección
2 Surge	2 Catolicismo
2 Indice	2 Razón y Fe

Ondoren, bakoitza batekin: YAKINTxo, Eusko Yakintza, Karmel, Olerti, La Maison Dieu, Sal Terrae, Verbum Domini, Esprit, Nuestro Tiempo, Figaro Litteraire, Insula, Euzko Gogoa (zaarra), Instrucción Teresiana, Ensayos, Oggi, La Gaceta Ilustrada.

SAL-NEURRIAKIN KONFORME AL ZERA?

Naizta "krisis" garai gogorra izan jendeak ez du garestiegitzat YAKINen salneurria.

ZEIN DA ZURE BIZIBIDEA?

Askok usteko zutenez, galdera onek etzeukan garrantzi aundirik. Baiña guretzat bai. Parkatu, baiña urrengo zenbakian emango ditugu galdera onen erantzunetatik atera ditugun berri jakingarriak.

BAI AL DUZU BESTE EZER ESATEKO?

Jendeari etzaio esanaia lengo galderakin agortu. Ba-du geiago ere esan bearrik.

Geienak beren zorion, eskerron eta txaloak eskeintzen dizkiote YAKIN gazteari. Beste batzuek gorago esan gabe utzi duten zerbait osatu, eta baita ere nai luketen zerbait eskatu edo gaizki iruditzen zaien akatxen bat agertu. Azkeneko auek zaizkigu garrantzitsuenak eta berak diotena emango dugu beste batzuekin naste.

Esan dute:

"Zorionak"

"Geiago? Ez al zaizu iruditzen naikoa?"

"Oso ondo iruditu zait, irakurleari iritzia eskatzea. Orrela, interes aundiagoa artzen baidegu."

"Urrengoan galderak egiteko orrian tarte geiago uzteko erantzunentzat; praille ximurak nabaritzen zerate. A! ta zerbait ikasia naitzela eta ikasten galerazi zidatela... ez aztu."

"Bai. Ezin leike ipiñi orri bat =SELECCIONES=ek ekartzen daben moduan berba gatzak zer esan gura daben?"

"Marrazkiak zerbait ugaritu eta aunditu."

"Ona litzakela sarriago argitaratzea."

"Illeroko bat ateratzera iritxiko baziñate, etzenduteke alburu makala iritxiko, ta zuen su bero au, gaur aundi egin dedilla euskaldun epel gerañontzat argi ta berotasun izan dedin."

"Teoloji-Filosofi-sailla, naizta gutxitan irakurri, garrantzi aundikoa iruditzen zaigu. Euskera landu ta arrotu egin bear dugu;

ortarako artikulu oiek baiña oberik ez dago. Sail ori aldizkariagandik kentzea tamalgarria benetan litzake." "Ba-dut beste zerbait. YAKINen, Teoloji ta Filosofi gaiak errenkan artu bear lirakela us-te dut... Ordena edo apaizgai artean bakoitzari bere gogoko sail bat -teoloji edo filosofian-izentatu bear zenioteste... Baiña beti ere norbere gogoko beste lanak bazterreratu gabe. Ezin leite-ke gaur egin, Fernando Mendizabal'ek zion ura?"

"Urtean sei ieki litzake guztiz polito."

"Lan guztiak neurri batekoak izan ezarren neurri-muga bat jarri bear litzake. Garbi-mordoi-lokerden arteko eztabaidak utzi bear lirake."

"YAKIN-ek irakurle geiago izan ditzan eta gutxi ikasiak ere irakur al izan dezaten, gai suspergarriagoak erabili bear litzuzke. Euskera erriari dagokiona izan bear badu, berdin izan de-zala gaia ere."

"a) Illerokoa bear lukela, naizta txi-kiagoa izan; b) edozelako idazleari sarrera eman bear zaiela; d) euskera erakusteko ataltxo bat bear duala; e) Filosofi-Teoloji-saila aldizkari-aren laurden eta bosturden geiena bear duala izan, aldizkaria geiagontzat izan dedin."

"Interesduneko artikuluak idazten saiatu bear dugula."

"Gure autore ugaria euskal irakurle gu-zien aurrean jarri eta orrela arpededun geiago izango litzuzke. Or dago GRAN VIA-ren irabazia."

"Apaingarri geiago ta alaitasun geiagokin ez al dago ateratzerik?"

"Edozein gai idatzi al diteke errebista ontan."

"Ez ote litzake egoki izango umientzako ikastolako liburuak (euskerazkoak, noski) nolakoak bear luketen izan, gai orri buruz zerbait idaztea? Ala jauzbidea dago or?"

"ORIXE jaunak "Bidalien egiñak" liburua-ri ezarri zion aurre itzeko 3'gn. orrialdean az-ken aldera diona irakurtzea onuragarri litzai-gukela, ots: "Euskera landuzale batzuk etorri zai-zkigu azken garai ontan..." asten dan esaldi ori."

;" "Sail guzietan eguneko problematzaz itz-egin ta ez or ibilli zer ikusi aundirik ez duten kontukin. Euskera erdikoa; ez mordoiilloegi ta ez garbiegi. Baiña beti gogoan euki bear duguna:

bearrezkoena egitea daia. EGIN mayuskulakin, ...
praille gazteak esan zun bezela."

"Euskera aurrera dijoala. Baiña ori ala izanik, emendik aurrera euskerarekin baiño ardu-
ra geiago izan bearko degula euskeraren bidez
esaten direanekin. Ori zaillagoa da. "Escribidore"
izatea erreza da, baiña "escritore" ez."

"Lenbaitlen inprentan atera bear dala
illeroko biurtuz. Gutxienez bi illeroko. Batek
lan bi ta baiño obe jantzi ez bardin geiagok
idagtea. Aitu?"

- - - - -

Adiskideak, ona IRITZI BILLA-k eman di-
gun frutua. Milla esker erantzun duten guziei.
Ba-dugu zer ikasirik zuen erantzunetan. Azken
lerro oietan irakurri zenezazkete jendearen gu-
rariak; ez danak, batzuk baizik. Ondo gogoan ar-
tzen ditu YAKIN-en zuzendaritzak. Guzion artean
beteko al ditugu!

Erakuspen ederra. YAKIN benetan ar-
dagola esan bearko. Berak uste baiño abegi ohea
egiten diote: numeroak zifaldari.

Bukatzeko, zenbaitek biali dizkiguten
erantzun luzeak urrengo zenbakietako lan batzuen
oiñarri izango dirala. Zenbaki onetan bertan argi-
gitara ematen dugu Kamiñazpi jatorraren lantxo
bat. Milla esker berari eta beste guziei.

Zuek esango duzute, bada, bidezkoa dan
edo ez YAKIN-en poza. Nik baietz esango.

Enbeita'tar Kepa
-Arantzazukoa-

OARRA: Igaz bezela adierazten dizuegu jiroz
datorren urtekoa ordaindu nai dutenak eta
al dutenak, Abenduaren 20 aurretik egin de-
zatela. Besteeri "reembolsoz" eskatuko zaie.
Jiro galdu edo nasterik sor baledi, pakean
arreglatuko gera.

YAKIN-en zuzendaritza.

A R K I B I D E A

Uste erdi...? 3

TEOLOGI-FILOSOFI-SAILLA

Aita Santuaren Itza - Muxika'tar Errupin,
beneditarra. 7

Russell: Jakiterik bai? - Azurmendi'tar
Joxe, Arantzazukoa 14

Teresa deunaren irakatsiak - Sekundino A.,
Karmeldarra. 21

Nola ezagutu Kristo? - Osa'tar Eusebi, La-
terandarra 25

Filosofia, zertarako? - Intxausti'tar Jose-
ba, Arantzazukoa 31

KULTURA-IAKINTZA-ANTZE

Anton Txejof - Olaberria'tar Ildefontxo,
Arantzazukoa 39

Karakterologiaren burubideak - Bastarrika'
Daniel, Iosulaguna 47

Georges Bernanos - Lasa'tar Mikel jauna . . 53

E L K A R R I Z K E T A

Zeintzuk dira euskal-itzak? - Kamiñazpi
jauna. 61

Arantzazu'tik - Azurmendi'tar Jose, Aran-
tzazukoa 69

Iritzi billa - Enbeita'tar Kepa, Arantzazu-
koa. 76

QARRA - Yakin-en zuzendaritza 87

